

NON ZER**Editorial gisa** 3**Kultura**Sormena literaturan eta zientzian, *Joseba Felix Tobar-Arbulu* 5Zornotzako toponimiari buruz, hipotesi batzuk,
J.M. Etxebarria 16Zientziagintzaren dekalogoia, *Jenaro Garate* 30**Eliza***KARMELDARREN ERREGELAREN 8. MENDEAN*- "Jatorrizko" Erregela, (*Luis Baraiazarrak itzulia*) 32- *Karmel* Mendia eta Karmeldarrak, Erregelarren
8. mendean, *J.U.-P.U.* 46- Bizitzako Erregelaren mendeurrena. OC-OCD Nagusi
Jeneralen gutuna (*Luis Baraiazarrak itzulia*) 83**Iritziak**Ezagutzaren teoria bat, *Roman Garmendia* 97**Literatura*****Kontu-kontari***Deabrua teilatu gainean, *Joseba Aurkenerena* 102***Olerkiak***Belloketik Lazkaora, Lazkaotik Estibalitzera,
Estibaletzetik Bellokera. "Gurutze" Sainduak fruitu,
JosAnton Artze 107Milia Lastur on the Road, *Itxaro Borda* 110Nire bizitza nire eguzki dantza da, *Leonard Peltier* 126Ariketa metafisikoak, *Pello Otxoteko* 152

KARMEL

Hiru-Hilebeteoroko aldizkaria

Zuzendaria: Julen Urkiza (Markina)

Idazle kontseilua: Luis Baraiazarra, Ana Urkiza,
Patxi Uribarren, Andoni Olea, Luis Arostegi

Helbidea: Karmeldarrak - Markina
48270 Markina - Bizkaia (Tel. 94-616 6019)

Harpidetza: Urteko harpidetza: 12 €.
(Europa: 18 dolar; Amerika: 25 dolar)

*Jarri, mesedez,
argi eta garbi zeure helbidea,
guk ipinitakoa ondo ez balego.*

Diruz lagundutako aldizkaria:



Kultura Saila

Jabe: Euskal Herriko Karmeldarrak
Karmengo kalea, 5. Markina.

ISSN: 1132-2357

Legezko gordailua: BI. 459/68

Inprimaketa: Itxaropena S.A. Zarautz

EDITORIAL GISA**Karmel zenbaki honetako gai berezi bi**

Karmel aldizkariaren zenbaki honetan atal berezi bi eskaintzen ditugu: *Elizari* dagokion atal berezia, eta *literaturari* dagokiona, bereziki olerkien arabera.

Karmel aldizkaria zenbaki honetan bere izena hartu zuen lekura begira dago, Karmel Mendira (Israel), Haifa herriaren alboan. Zergatik? Karmeldarrek euren Institutu edo Ordenaren sorrerako zortzigarren mendea ospatzen dute. Zortzi mende urte asko dira, bai. Baina historia bizi-bizirik dutenentzat esan daiteke ez dagoela hain urrun, atzo balitz bezala agertzen da.

Ekintza handi hau ospatzeko aldizkariko orrialde asko eskaintzen dira; lehenengo hasierako dokumentua (orain dela zortzirehun urtekoa) latinetik itzulita emango dugu: Karmel Mendiko gizonen bizitzarako araudiak, idazki laburra baina ideiaz eta espirituz betea. Zortzigarren mendea ospatzeko Karmel familia bien Aita Jeneralek egin duten gutuna ere eskaintzen dugu. Eta beste artikulu bat agertzen da: Karmel mendia eta karmeldarren sorrerari buruzkoa.

Beste aldetik, irakurlea konturatuko da olerkien atalean aldizkariak zenbaki honetan eskaintzen dituen orrialde ugari, hainbat gai eta estiloz idatziak diren orrialdez. Olerkariak

hauek dira: Jose Anton Artze, Itxaro Borda eta Pello Otxoteko. Baina beste eskaintza berezi bat ere bada: Leonard Peltieren olerkiak ingelesez, Joseba Felix Tobar-Arbuluk euskarara itzulita.

SORMENA LITERATURAN ETA ZIENTZIAN**1. Sarrera gisa**

2007ko udan Bedaroen jakin nuen, edo behintzat honela ulertu nuen, euskal idazle “neutroak” daudela, alegia sormena izanik haien helburua, dirudienez, sormena objektiboa da: ez dagokio ez inongo emakumeri, ezta inolako gizoni ere, “idazle” hutsei baino. Idazle “neutro” hori ezerk kutsatzen badu, kulturak, gizarteak, giro soziologikoak markatzen ditu, ez besterik, ez inolako generorik. Gure idazleak, gazteak behintzat, generorik gabekoak omen dira. Generoak ez ditu markatzen beren obrak.

Aspaldiko eztabaida bertsua ezaguna daukat zientzian. Hau da, zientzilariak gizartea konkretu batzuen ispilu besterik ez direla esaten duen leloa. Marxismo leninismo arrunt eta atzerakoi batean hasi zena, eta stalinismo eta maoismo merkearen bidez zabaldu zena, badirudi, berandu bada ere, gure euskal idazle gazteongana iritsi dela. Okertuta egon naiteke, erabat; baina Bedaroen entzundakoak bestela pentsatzera bultzatzen nau.

Zientzian, sormen zientifikoan dela-eta, antzeko leloak entzun ziren: Einsteinen erlatibitate teoria, kasu, judua zen, burgesa zen, ... Horrelakoak eta are gogorragoak irakurri izan dira mendebaldeko zientziaren historian. Baina Einsteinen burmii-

nean, fisikan gertatzen diren zenbait fenomeno ulertzea besterik ez zegoen, zientzilari handi guztien garunean egon den kezka bertsua, alegia kanpoko munduan dauden lege fisikoak, kimikoak, edo biologikoak ulertu nahi izatea. Eta helburu horretara soilik burmuin pribilegiatu batzuk iristen dira, lan asko eta etengabea egin ondoren.

Richard Feynman Nobel saridunak eta fisikariak idatzi zuen moduan: “*We have been led to imagine all sorts of things infinitely more marvelous than the imaginings of poets and dreamers of the past*”. (Bego, oraingoz, sormen zientifikoari buruzko aipu hori. Sormen zientifikoa versus sormen literarioa beharago ukituko dut.)

Antzekoa gertatzen ote da literaturan? Ez dakit. Baina, Idatziko ote zukeen Virginia Woolf-ek idatzi zuena baldin eta emakume barik, gizonezkoa izan balitz? Bizirik dagoen emakume idazle kanadar aparta den Margaret Atwood-ek gauza berberak idatziko ote litzuke, baldin eta gizona balitz? Ez dut uste. Sormen objektiboa literaturan? Gogorra egiten zait horrelako bitxikeria irenstea, gogorregia.

Hori kontuan edukiz, emakume-burmuinak eta gizon-burmuinak ezberdinak direla esatera ausartu nintzen. Horreur! Zalaparta itzela: “sormena, sormena da helburu eta horretan denak berdin”. *Egalité, fraternité et liberté*... badakizue... Iparraldean esaten den bezala: hitz ederrak egia balire... Gizonezkoen burmuinak, garunak eta emakumezkoenak berdin bide dira, sormen literarioen ikuspuntutik... Omen, behintzat euskal poeta gazte batzuen aburuz.

Baina Louann Brizantine neuropsikiatra iparamerikarrak (*The Female Brain* izeneko liburuan, 2006, eta bere esperientzia luzean) frogatu duen moduan, hormonek bi mundu, bi errealitate bereizten dituzte: errealitate maskulinoa eta femeninoa. Garuntan dago giltza. Emakumeen garunean gertatzen diren erreakzioak zergatik eta nola gertatzen diren azaldu du emakume horrek. Brizantineren arabera, garuna aztertzerakoan, emakumez-

koei dagozkien zenbait zantzu garbi azaltzen dira: hala emozioetan nola memorian zein oroimenean. Gizonen eta emakumeen arteko aldea jabetzeko, liburua irakurri beharra dago. Ez soilik irakurri, azertu eta kritikatu ere. Neuronek agintzen dute, eta berorien funtzionamenduek gizonezko eta emakumezkoak bereizten dituzte. Brizantineren lanak kontuan harturik (ikus <http://www.louannbrizendine.com/media.html>), badirudi, euskal emakumezko poesiak, nobelak, ipuinak eta abar “pixka bat” desberdinak izan daitezkeela. (Batzuek badakigu, ongi jakin, ezberdinak izan direla, direla eta izango direla!!!)

Garuna ez da batere neutro. Norberaren arabera (euskaldun izan ala espainola, zuri ala beltza, emakume ala gizonezkoa, heterosexuala ala homosexuala, yankee ala indiarra, ...) idazten da literatura ona egin nahi denean, non emozioek, memoriak, oroimenak, eta abar luze batek aparteko garrantzia baitaukat.

2. Hiru errealitate desberdin. Hiru sormen ezberdin

Logikan aritzen ziren askok errealitate soil eta bakar bat irudikatu nahi zuten. Orain, alta, badakigu hiru errealitate ezberdin daudela: 1) matematikoa (eta logikoa); 2) materiala (eta soziala); eta 3) fikziozkoa (literatura, poesia, pintura, eskultura, musika,...arteak oro har).

Logikariek erabiltzen duten sinbologia erabiliz, $\exists x$ delakoa honela irakurtzen da: “x existitzen da”, edo “badago x”. Hiru errealitate mota kontuan edukiz, aipaturiko existentzia ez da nahiko eta, beti, horrelako zerbait idatzi behar da:

$\exists x \wedge x$ matematika da: “*badago x eta x matematika da*”

$\exists x \wedge x$ materia da: “*badago x eta x materia da*”

$\exists x \wedge x$ fikzioa da: “*badago x eta x fikzioa da*”

Matematika eta logika munduan egiak *absolutuak, betikoak eta osoak* dira: kasu, “log 10 = 1” guztiontzat eta betiko egia osoa da.

Mundua materialean (fisikan kimikan, biologian) egia topatzeko metodo zientifikoa deitzen dena erabiltzen da. Jakina da XIX. mendetik datorrigun eztabaida, hots, ea metodo zientifikoko hori aplikatu ote daitekeen mundu sozialean (ekonomian, soziologian, eta abarrean). Baina hori ez dugu hemen ukituko. Beste aldetik psikologian (non genetika, ingurunea eta borondate librea aritzen diren) dauden eztabaidak bukaezinezkoak dira. (Zientzia eta sormen zientifikoa aipatzerakoan batez ere fisikan gertatu zenari begiratuko diogu, zeren aipatu nahi duguna argiago eta adierazgarriago ikus baitaiteke arlo konkretu horretan.) Mundu materialean egia *erlatiboak* (arlo konkretu bati dagozkio), *behin behinekoak* (historian zehar, zientzilari berriek teoria berriak asmatzen dituzte), eta *partzialak* (gero eta hobeto ezagutzen da mundu material hori).

Fikziozko munduan egia autore konkretu bati dagokio (bera Mozart, Van Gogh, Miguel Angel, Shakespeare edo Anne Sexton izan). Autoreak nahi duena plazaratzen du.

Matematikazko egia ez dira fikzioak: guk gizakiok sorturiko mundu berezi bateko, mundu platoniko bateko egia baizik. Mundu hori guri dagokigu, geuk ezarri ditugu mundu horren arauak eta "legeak". Halaber, mundu materialean (eta sozialean) azaltzen diren egia ez dira matematikazko egia bezain zehatzak. Izan ere, mundu materialeko egia behin behinekoak dira (garun pribilegiatu berri batzuek teoria sako-nagoak eta indartsuagoak sortzen dituzte denboraren poderioz). Mundu hori guregandik kanpo dago, eta bertan dauden legeak ez dagozkigu guri. (Ilargia hor egongo da, ni bizirik ala hilik egonda, eta berak lurraren inguruan biraka ariko da, guri ez dagozkigun lege fisiko batzuen arabera). Lege fisiko, kimiko edo eta biologikoak deskubritzea aparteko zientzilari, aparteko garunei dagokie. Fikzioan, aldiz, autore konkretu baten jartzen ditu beren mugak, bere arauak, bere intuizioak, bere sentimenduak, bere nahiak, bere "mundua", ...

Artean subjektibotasunaren arabera lana da emaitza.

Zientzian guregandik kanpo dauden lege objektiboak deskubritzea da helburu.

Matematikan gizakiok sorturiko lege objektibo berezi batzuen bitartez aritzen da.

Argi dagoenez, mundu horietan guztiotan garunak dira garrantzitsuenak.

Hiru errealitate desberdin horiei, hiru sormen ezberdin dagozkie. Kasu, sormen literarioak ez dauka zer ikusirik, eta ez du behar eduki, inongo sormen zientifiko zein matematikorekin. Garun apartak behar dira hiru esparru desberdin horietan, baina eginkizunak, helburuak, eta emaitzak erabat desberdin dira.

3. Norgehiagoka?

Charles Snow-ek aspaldian (1959, “*Two cultures and the scientific revolution*”) salatu zuen mundu literarioan eta mundu zientifikoaren artean zegoen (eta oraingoz dagoen) jauzia. Hain handia da ezen maiz, beti ez aipatzearren, bi mundu horiek badirudi elkarren aurka ari direla.

Nahikoa litzateke Feynman-en aipua: “Our poets do not write about it [science]; our artists do not try to portray this remarkable thing. I don’t know why. Is no one inspired by our present picture of the universe? This value of science remains unsung by singers: you are reduced to hearing not a song or poem, but an evening lecture about it.”

Eta fisikari aparta hark poeta bilakatu nahi zuen, gutxienez, hitzaldi baterako. Hona berak idatzitakoa:

There are the rushing waves
mountains of molecules
each stupidly minding its own business
trillions apart
yet forming white surf in unison.

Badaude lehian aritzen diren olatuak
molekulen mendiak
bakoitzak ergelki bere kontuez axolaten
trilioiak aparte
baina batera olatu-apar zuria eratzen.

Ages on ages
before any eyes could see
year after year
thunderously pounding the shore as now.
For whom, for what?
On a dead planet
with no life to entertain.

Never at rest
tortured by energy
wasted prodigiously by the sun
poured into space
A mite makes the sea roar.

Deep in the sea
all molecules repeat
the patterns of one another
till complex new ones are formed.
They make others like themselves
and a new dance starts.

Growing in size and complexity
living things
masses of atoms
DNA, protein
dancing a pattern ever more intricate.

Out of the cradle
onto dry land
here it is
standing:
atoms with consciousness;
matter with curiosity.

Stands at the sea,
wonders at wondering: I
a universe of atoms
an atom in the universe.

Mendeak eta mendeak
edozein begik ikus zezakeen baino lehenago
urtetik urtera
durrundatuki lehorra joz orain bezala.
Norentzat? Zertarako?
Planeta hil batean
inolako bizitzarik entretenitzeko.

Inoiz ez atsedenean
energiak torturaturik
eguzkiak miragarriki alferrik galdurik
espazioan isuririk
Pixka batek itsasoari orroa eragiten dio.

Itsaso sakonean
molekula guztiek errepikatzen dute
elkarren modeloa
harik eta multzo berriak eratu arte.
Beraiek bezalakoak eratzen dituzte
eta dantza berri bat hasten da.

Tamainan eta konplexutasunean haziz
bizidun gauzak
atomoen masak
ADN, proteina
are korapilatsuagoko modeloa dantzatzu.

Sehaskatik at
lur lehorraren gainean
hortxe dago
zutik:
kontzientziadun atomoak;
jakinguradun materia.

Zutik itsasoan,
harriduraz harrituta: ni neu
atomoen unibertso bat
atomo bat unibertsoan.

Poesia? Zientzia? Ikus: <http://www.phys.washington.edu/users/vladi/phys216/Feynman.html>.

4. Tartean zabor intelektual nonahi

Zaborra nonahi agertzen da, baita mundu ‘intelektualean’ ere. Hona hemen gure herri honetan oso zabaldua dagoen aitabitxi bat, Freud alegia.

Zer esan berari buruz eta haren jarraitzaileei buruz, apezño berriei buruz? Dena esanda dago. Hortaz, hona hemen ohar xume batzuk besterik ez.

Beraren prosa oso ona bide da, zeren, ezaguna denez, Alemaniako prosa zientifikoaren sariak beraren izena baitauka. Baina beste kontu bat, erabat desberdina, haren prosaren edukia da. Onenean, psikoanalisi hitzontzikeria hutsa besterik ez da.

Baina zabor intelektual hori apezño berriek serio hartzen dutenean, arrisku bilakatu daiteke. Izan ere, ongi dagoen buru bat, burmuin bat gaiztotu ahalko dute zeharo. “Egoa”, “superegoa”, “estutasuna”, “larritasuna”, “ametsen interpretazioa” (sic), Eta tartean etengabeko *ad hoc*-eko hipotesiak: “*Hau esan duzu, baina beste bura esan nahi zuen (sic) zeure inkontzientek*”. Inolako funtsik gabeko hitz-jarioa. Kasu, desioen betetzearen gabeziak sortzen omen du estutasuna, “zulo” horiek betetzen ez direnean.

Spinoza, aldiz, desio, gurari eta nahiak betetzeko, etengabeko inmanentziaz mintzo zitzaigun, poztasuna aldarrikatuz.

Freuden, eta oro har, psikoanalista guztien bekatu txikia ondokoa da: azaleko erudizioa barra-barra erabiltzea, inongo lotsarik gabe, testuinguruan erabat kongruentziarik gabekoak diren termino tekniko mordo hedatuz.

Okerrena beste hau da, alegia, esanahi gabeko esaldiak manipulatzea. Izan ere, autore ospetsu horren hitzen toxikapenez mintza daiteke, hitzak esanahiez inongo ardurarik gabe erabil-

tzen dituelako. Iruzur eta zantarkeria intelektual horiek salatu behar dira, inolako dudarik gabe. Freud joan zen baina horren atzean geratu den segizioa ikaragarria da. Izan ere, Freud jarraitzaileen artean, “hoberena” eta aipatuena, inolako dudarik gabe, Lacan izan da.

Lacanek eta lacanzaleek maisuari kasua eginez, honako araua erabiltzen dute: “*Ezein esaldik ez du esan nahi berak dioena*”. Zer ote dira, bestela, “Lacanen sexualitatearen teorema” (sic)? Eta hori gutxi balitz, hona neuri gehien gustatzen zaidan perla: “*Gure zakilak ÷-1, hots, i zenbakia berdintzen du*”. Ikaragarria!!!

Chomsky-k dioenez, “*I knew Lacan personally and I never understood a word he was taking about (...) I have a strong feeling that he was playing jokes, that he was trying to see how crazy he could be and still get people to take him seriously*”. (*The Architecture of Language*, p. 47), eta ohar batean (p. 77), “*(...) my frank opinion is that he [Lacan] was a conscious charlatan...*».

Gure herri zafratu honetan, zabor intelektual hutsa den psikoanalisisa oraindik zientzia gisa (!) aurkeztu nahi izan da. Are gehiago, apezño berriak gai izan dira Freud, Lacan, Mao eta gaizki erabilitako multzo-teoria erabat nahastea, zorabioaren zorabioa lortuz. Honela, kasu, horrelako bitxikeriak irakurri ahal izan ditugu: ENAMA (hots, Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua) “*anitz infinitua da*” (sic). Eta lasai gelditu! Euskal basamortu intelektual honetan maizegi agertu dira horrelako baieztapen miragarriak.

Stalinen denboran, lehengo Sobietar Batasunean lisenkoismoa hedatu bazen ere, eta Alemanian, nazien denboran, Einsteinen erlatibitate teoria “zientzia judu” gisa hartu bazen ere, gure txoko honetan irrazionalkeria bultzatzen da eten gabe. Baina arrazionaltasuna ez da irrazionalkeria objektibotasuna objektibokeria ez den bezalaxe. Arrazoia erabiltzea ez da esoterismoan murgiltzea, kasu, psikoanalisian aritzea. Arrazoitik

kanpo ez dago inolako paradisurik, are gutxiago psikoanalisiaren bidez analizatu daitekeena. Arrazoitik at ez dago inongo salbaziorik, amildegi itsu eta iluna baizik, totalitarismora eta faxismo berrira daraman amildegia.

Badakigu, ongi jakin gainera, zer-nolako eztabaidak dauden metodo zientifikoaz, natur zientzien eta gizarte zientzien arteko ezberdintasunez, teoriak, hipotesiaz eta metodologiak.

Gizarte- eta giza zientzietan (edo dena delako arlo horretan) murgiltzen diren progreen, modernoan, post-modernoan eta gainerako jendilajearen hitzontzikeria agerian utzi behar da. Arazoa funtsekoa da. Hortaz, hemen dauzka irakurleak oso salaketa mamitsu eta adierazgarriak: Sokal eta Bricmonten (1999) *Imposturas Intelectuales* delako liburua eta Sokalen web-orria (<http://www.physics.nyu.edu/faculty/sokal/index.html#papers>), Sokal-en parodiak sorrarazitako “literatura bereziaz” jabetzeko.

(Espero dezagun barre eragiteko balioko dutela lan horiek. Hauxe da psikoanalisten bi ezaugarri nagusi: (a) oso pertsona serio eta aspergarriak dira, izugarri molestatzen baitzaizkie irribarreak; eta (b) ‘autoritatearen’, alegia maisuen (Freud, Lacan,..) kontrako argudioak eta kritikak ez dituzte onartzen. Egin froga, eta ikusiko duzu!)

Bukatzeko, hona hemen lekukotasun bat: *The Organization of Behaviour: A Neuropsychological Theory* liburu ederraren autorea zen Donald Hebb neuropsikologoak (http://www.nature.com/nrn/journal/v4/n12/full/nrn1257_fs.html), jubilatuta zegoela, aparteko hitzaldi ona eman zuen Montrealeko McGill University-n, 1984an. Bere garapen intelektuala aritu zen. Jubilatuta egon arren, izugarrizko indar eta kemen intelektuala erakutsi zigun. Azkenean, jendarteko batek psikoanalisiak galdetu zion. Hona haren erantzuna: “*Norberaren bizitza intelektualean psikoanalisiari gehienez zortzi (8) minutu dedikatu behar zaio. Besterik ez*”. Uste dut Hebb oso eskuzabala zela.

5. Modestia, zehaztasuna eta ironia

Titulu honekin idatzi dute, berriz ere, Bricmon eta Sokal-ek (ikus “*Modesty, rigor and irony*”, in <http://www.physics.nyu.edu/faculty/sokal/index.html#papers>). Hona bi autore horiek lantxo horretan aipatzen dutenaren laburpena:

a) Bouveresse-k, frantziar filosofoak, Sokal eta Bricmont-ek defendatzen dituzten ideia berberak defendatzen ditu (ikus haren liburua: *Prodiges et vertiges de l’analogie: De l’abus des belle lettres dan la pensée.*)

b) Bouveresse-ren kritika sendoagoa da eta are gogorragoa Sokal eta Bricmont-ena baino.

c) Bouveresse-k ongi ezagutzen zituen Althusser eta Lacan. Geroago *École Normale Supérieure* delakoan ikusitakoa, “*sasi-zientzia, filosofia txar eta politika imaginario*”-tzat salatu zuen (ikus bere “*Le Philosophe et le réel*” izeneko liburua).

d) Bouveresse ados zegoen Chomsky-rekin, azken honek honelakoa idatzi zuenean (“*Language and politics*” delakoan): “*French intellectual life has, in my opinion, been turned into something cheap and meretricious by the ‘star system’. It is something like Hollywood. Thus we go from one absurdity to another –Stalinism, existentialism, structuralism, Lacan, Derrida- some of them obscene (Stalinism), some simply infantile and ridiculous (Lacan and Derrida). What is striking, however, is the pomposity and self-importance, at each stage.*”

e) Bouveresse-ren iritziz, kontua are komikoagoa da autore horiek zientzilarien metodoak imitatu nahi dituztenean.

f) Hona Bouverese-n hitzak: “*Baldin eta zientzia (...) literaturaren espezie berezia bada, (...) oso gogorra da ikustea zerk geldi dezakeen haren erremintarik tekniko-*

nak manipulazio eta deformazio literario mota guztietan erabilia ez izatetik.”

g) Bouverese-k frantsesezko mass-median autore horiek daukaten oihartzuna oso gogor kritikatzeko du: kazetari horiek, inongo konpetentzia zientifikorik gabe, “*nevertheless claim that what they do not understand may actually very well be understood*”, (esan gabe, noski, zein zentzutan testu horiek ulertuak izan daitezkeen).

h) Bukatzeko, hona Bouverese berriz: “*When criticism, even the most well-founded ones, are directed against intellectuals of a certain stature, they are considered ipso facto prosecutorial and inquisitorial...*”

Aspaldian ohartu zigun George Orwell-ek (“*Politics and the English language*”: <http://www.mtholyoke.edu/acad/intrel/orwell46.htm>) argi idazteko garrantziaz.

Idazteko era, forma zaindu behar da, noski; baina, gauza guztien gainetik, aipatzen den edukiaz jakin behar da. Bestela, iluntasuna eta zabor intelektuala batera joan daitezke, tamalez, gure txoko honetan maizegi gertatzen den moduan.

joseba felix tobar-arbulu (donejurgi)

ZORNOTZAKO TOPONIMIARI BURUZ, HIPOTESI BATZUK

Hizkuntza guztiek tokiei izena jartzen diete. Euskararen kasuan ere gauza bera gertatzen da. Eta ongi dakigu zenbait tokitan euskaraz mintzatzen zela, toponimo euskaldunak gorde direlako, nahiz eta euskara bera antzina desagertu zen lurralde horietan. Adibide ezagun batzuk Errioxan, Nafarroako hegoaldean eta Auñamendi inguruan Catalunyaraino gorde izan dira. J. Coromines-en iritziz, euskal tankerako hizkuntzak erabiltzen ziren mendikate honen inguru luzean. Toponimia edo lekuizenak, azken galtzen den hizkuntza baten lorratza izaten dira. Eta asko eta asko aurreko gizaldietako agiri eta paperetan gordetzen dira idatzita. Hizkuntza bat azterten denean, toponimia ez da galtzeko arriskurik gehien duena. Dena den hizkuntza txiki eta administrazioerik gabeko hizkuntzen eremuan, idazkari edo agintaritzaren duen norbaitek aldatu izan ditu toponimoak. Ez asko baina banakaren bat bai. Euskal Herrian badago ‘Descarga’ bat. Edo Zornotza inguruan, badago ‘Monte Calvo’ bat. Edo Enkarterrian badago ‘La Cuadra’ bat ere. Herriak ere asmatzen ditu toponimo batzuk. Herri honen erdigunean badago adibide bitxi bat. ‘Pike’ baserria zegoen tokian etxeak eraikita daude eta erdian plaza txiki bat, garai baten baserri horren soloa zen lurrian. Izen ofiziala ‘Euskalerrria plaza’ da. Baina herritarrek ‘Pike park’ jarri diote lehenagoko base-

rriaren izenarekin tokia elkartuz. Aldaketak gehienetan ondo-ko beste hizkuntza batek eraginda sortzen dira, batez ere hizkuntza batek belaunaldiz belaunaldi eskolarik eta administrazio-rik ez duenean. Eskolak ekartzen du hizkuntzaren arautze bat. Bestela igarri gabe, ondoko hizkuntza indartsuagoa, hobegotzat hartzen da eta horren arabera makurtzen da hizkuntza txikia. Adibide bat jartzeko Catalunyatik hartuta, baina kolonizatzaile indartsu guztien artean gertatzen dena, J. COROMINES-ek dakar *Estudis de toponímia catalana*, I, 178. orrialdean. Beste batzuetan kolonizatzaileak berak nahasten du toponimo bat: Cova's Porcs toponimoak, mapetan izen bitxi hau jaso du: Cueva Sport. Adibide hau J. COROMINESen *Estudis de toponímia catalana* liburuan dago, II. tomoan, 269. orrialdean. Gure arteko adibide bat aipatzeko, JIMENO JURIO jaunak argi utzi zuen Muruarte de Reta izena oker jaso dutela gizaldietan. Izen zuzena MURU ARTEDERRETA da. Ganera bada lanen bat aspiraketa Lekeition eta XX. mendean bilatu duena (¿) eta besteren batek bizkaieran bizkar-hobietako frikari gorra ere bilatu izan du, beste inork bilatu ez duena, baina salbuespen hau kenduta, argi dago aspiraketa bizkaieran XIV. gizaldian edo galdu zela. Eta bizkar-hobietako frikari gorra ere antxina galdu zela, XVII. gizalditik honantzako idazkerek adierazten duten bezala. Erromatarren garai aurretik nahikoa argi ikusten da euskal toponimoak topografiaren egoera adierazten dutela. Adibide ugari jasotzen ditu J. COROMINESek aipatutako liburuan, I. 67-91 orrialdeetan, batez ere 84-89. Beste adibide asko sakon aztertuta, liburu berdinean, 93-217 orrialdeetan. Beste arrazoi batzuk egoten dira, toponimia azterketa sakonago eta luzeagoak egiteko, hizkuntzarekin eta hizkuntzalaritza-rekin zerikusi gutxi dutenak.

Hemen Amorebieta-Etxanoko toponimoei buruz hipotesi batzuk aurkeztu nahi ditut. Hipotesiak dira eta hainbat artxibotako paper eta bestelako agiri asko eskatzen dute eta datuek ondo arakatzea. Horregatik nik *hipotesi* mailan uzten ditut, pa-

perak eta agiri zaharrak aztertzeko aukera dutenek egiaztatu edo aldatu ditzaten hipotesi hauek.

Gauza bat agertzen da Zornotzako toponimo zerrendetan. Asko eta asko lekuarekin guztiz lotuta daude. Arriaga, Arriagana, Arrikuskurreta, Basagoiti, Basarte, ainbat Etxebarri auzo desberdinetan, Elexaga, Errota-barri, Gane, Goikoetxe, Makazaga, Olabarri, Solaguren goikoa eta bekoa, Zabale, Urtzar, Alzibar, Aretxa eta Aretxaga. Bekoetxe, Elortza, Intxaurtza, Larrabe, Ibarra, Oxinburu, Ategorri, Ugarte, errota zena, Garamendi, Ibaguren, Larraburu, Burdinbide, Txopoeta, Turbiñe, Basabe, Urriti (Urrutia), Bernabaso, Bernatorre, Egiarte, Lugorria, Zaratsu, Jauregi (aurrekoa, bekoa, goikoa), Jaurizar, Zelaieta, Zubieta, Zubipunte, eta beste hainbat. Antroponimoen izena hartu dutenak gutxi dira eta berriagoak direla ikusten da: Goiriena, Antxonena, Aranzetan etxea, Pertikan etxea, Aldazabalena, Lopezen txaleta eta beste gutxi batzuk. Goazen orain toponimo batzuetarako hipotesi batzuk aztertzeraz.

AMOREBIETA: Okerreko hipotesiak eta hipotesi zuzenagoak.

1.-Okerreko hipotesiak era bitakoak dira. Legendetan oinarrituak, eta euskal hitzak oker erabilia eraikitakoak. Legendak esaten duen ‘amor de dos’ herri etimologian sustraituta dago. Eta ez du baliorik benetako etimologia bezala. Bigarrenak euskal hitzak hartzen ditu. Izen horren azpian amorrain+ibi+eta dagoen hipotesia. Okerrekoa da amorrain hitza ez delako bizkaiera, arrankari hitza baino, eta herri hori bizkaieraren barruan dago. Gainera badauka beste akats bat ere egia izateko. Amorrain hitzean *erre* anitza dago (rr dardarkari anitza), eta soinu hori ez da inoiz ere dardarkari simple bihurtzen hemengo euskarari. Silaba librean r bikoitzarekin idazten da, eta silabra tratatuan, r bakarrarekin. Beraz *Diccionario enciclopédico del País Vasco*, Haranburu-Altuna jaunak argitaratua eta nik neronek idatzi nuen lantxo batean oker berdina egin genuen. (Diccionario horretan I tomoan, 193 orrialdean, 1985an argita-

ratuta. 1981ean Haranburu editor argitaldariaz gauza bera esaten du *Enciclopedia histórico-geográfica de Vizcaya* liburuko 2. tomoan, 41. orrial.) Soinu horren tinkotasunaren adibide asko daude herri honetako toponimoetan: Arlaban (Arri + laban); Ergoien (erri + goien); Arburu (arri + buru); Elordi (elorri + di); Bizkargi (bizkar + egi). Silaba librean ere gordetzen da: Arriandi, Urriti (Urrutia), Arriquiscorreta, Errotabarri edo Larrea. Eta r dardarkari leuna ez da toponimoetan dardarkari anitz bihurtzen: Boroa, Jauri-becoa, Aretxakorta, Arechaga edo Urumin. Gainera toponimo hauetan, nik uste dut azentuak ere eragina izan duela, árrri, élorri, érrri eta bízkar esaten delako herri honetan.

2.- Beste hipotesi batzuk badute azalpen zuzen baterako arrazoi bat edo beste. Badago beste hipotesi bat Alfontso Irigoyen zenak hitzez behintzat azaldu zuena: amorru+bietan. Horrela azaltzen du A. Manterola zornotzarrak, 'Gure artean' aldizkarian, 1999ko otsailean. 'Bietan' horrek NON kasuko -n galtzen du. Eta hori gerta daiteke. Baina *amorru* hitzak erre dardarkari anitza du. Eta hemen ere pentsatzen dut nahiko zaila dela dardarkari anitza, leun bihurtzea besterik gabe, inguruguneko toponimo guztietan, gorde izan delarik. Toponimoetan hemen behintzat *erre* biak ondo bereiztu eta aldaketarik gabe jarraitzen dute: Jauri-bekoa (Jauregi-bekoa) edo Aretxakorta baserri izenak agertzen dira bataio liburu baten. Eta Boroa, Arechaga edo Urumin toponimoetako r leuna ez da aldatu.

Azkuek proposatu zuen beste hipotesi hau. Amorebedar+ibi+eta. Amorebieta toponimoa duen lurraldea, Andra Mariaren parrokia inguruan dagoena da. Eta egia da han Ibaizabalek okerrune batzuk izan zituela eta orain ere badituela. Garai baten ibietatik gurutzatzen zuten erreka hori eta ibiak bazeuden harririk harri bestaldera igarotzeko. Arazoa da 'bedar' hori. Onartu beharko litzateke, 'bedar' hori arrunta izanik galdu egin zela. Ba ote dago arrazoirik horretarako? 'Sekulebedar' esaten da herri honetan, baina frantzesia eta ez fran-

tzes bedarra. ‘Azeri bedarra’ esaten da, baina berbena. Agian baten batek esango du berbena-bedarra, baina hiztun gehienek galdu dute ‘bedar’ hori. Zantiretu-bedar ere esaten da, baina mintzatzerakoan ‘zantiretue’ esaten dute herri honetan. Edo kardulatza baina hemen ez da forma ezaguna ‘kardulatz bedarra’. Hipotesi hau egiaztatzeko gauza bi jakin beharko genituzke: ea amorebedarrrik (*cacaulis latifolia*, edo gazteleraz ‘hierba de amor’) zegoen errekaren inguru horretan, eta Amorebieta toponimoak idatzietan dituen aldaki guztiak edo gehienak. Ibi tokia bazen eta bada, eta bat baino gehiago zeuden Ibaizabal gurutzatzeko zubirik ez zegoen garaian batez ere. Badago beste antroponimo bat herri honetan ezaguna dena: Zarandona. Nahiko ziur pentsa genezake, ‘zarandona-bedar’ dela abizen horren sustraia. Gazteleraz ‘*celidonia mayor*’, eta izen botanikoa: ‘*Chelidonium majus*’. ‘Bedar’ hitzaren bigarren zati hori galdu egin du antroponimo bihurtu denean. Bedar hori, mota askotako landareek hartzen dute, daukaten izenaren zati bezala. Zergatik ezingo luke galdu ‘bedar’, *amorebedar* hitzak, toponimo bihurtzerakoan? Gero ikusiko dugun Zornotzarekin ere, horrelako zerbaite gertatu zitekeela pentsa genezake hipotesi bezala.

Beste hipotesi bat ere aurkeztu daiteke, honek ere arazo batzuk dituen arren. Batzuetan idazkietan agertzen da Amorebieta. Bizkaian badago herri bat Amoroto. Horren etimoa apo+onto zelakoa aurkeztu zuen amerikar batek eta Mitxelenak onartu zuen apo+onto sustrai horretatik sortu zela Amoroto. (Ikus J. J. ARBELAIZ, *Las etimologías vascas en la obra de L. Michelena*, 1978, 30. orrialdea). Orduan guk ere hipotesi bat aurkez genezake: apo+onto+ibi+eta. Hortik sortuko litzateke ‘Amorotoibieta’. Hipotesi honetan arazo bi daude konpontzeko. Ba ote zegoen ‘Apo ontorik’ toki horretan erreka inguruan? Hori jakin beharko litzateke. Eta bigarrena, Amoro-to hitzeko azken silaba horren galera. Agian silaba horren eta geroago datorren -ta horren arteko kakofoniagatik aurrekoa galdu egin ote zen? Erabilerari buruz ohartxo bat. Amorebieta izeneko za-

titxoa Andra Maria parrokia dagoen ingurua da, ez beste lurralde batzuk. Eta zatitxo horren izenarekin batzuk herri osoari izena eman zioten, antza denez. Izen hau gaztelera mintzatzaren denean erabiltzen da.

ZORNOTZA. Izen hau duen lurraldea gaur Urritxe eta Gernikarako kaminoaren artean dago. Eta hantxe dago gainera baserri bat izen honekin. Merinoa bizi omen zen garai baten etxe horretan. Oraingoan ere lur zati txiki batek izena ematen dio herri osoari. Merino edo orduko juezaren egoitza zelako?. Hemen ere hipotesi bat eraiki daiteke ‘zornabedar’ oinarriztatuta. Zorna(bedar)+tza edo Zorne(bedar)+tza. Oingoan ere ‘bedar’ hori arrunta dana, galdu zitekeen eta gelditu zen Zornatza edo Zornetzta. Zornotza, o birekin, asimilaketak argituko liguke. Gainera hemen ere azentuak baduela zerikusia esango nuke, Zórnotza esaten delako, azentua lehenengo silaban dagoelarik. Ez dago zornotzarrik Zornótza esaten duenik. Horrekin errazago uler daiteke bokalen asimilaketa. Herritarrek oinarrizko forma honi aldaketa bat ere eman diote: Zórrontza. Hemen metatesi bat gertatzen da. Fonema bat inguruguneak eraginda tokiz aldatzea, hizkuntza desberdinetan gertatzen den fenomeno da. Eta euskaran ere gertatzen da hori. Zornotza edo Zorrontza, euskaraz mintzatzaren denean erabiltzen den izena da. IRIGOYENek bere lan baten *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica* aipatzen du Zornotza toponimoari buruz bere eritzia. “Zornoza” barrio y término de Valmaseda, s. XV, Cornoça y Zornoza, que coincide con el nombre que los hablantes vascos dan a Amorebieta, pop. Zorrontza que es además el de la Merindad, por residir el Merino o juez mayor de dicha Merindad en la casa de dicho nombre....En la fogueración de 1704 se registra como Zornoza en la cofradía de la Plaza...En la carta puebla de Bilbao según versión de Iturriza ...se dice fasta el arroyo que viene por como del campo de Zornozaga, con suf. toponímico –aga...Cabría preguntarse si en el grupo consonántico –rn- [Zorrontza] no se esconde una vocal caída, que acaso los hablantes vascos la conservan, de

una manera semejante a lo que sucede con barne, forma oriental con –e paragógica, ‘interior’, frente a barren, de igual significado en guip., constituyendo esta última la forma originaria. Si esto fuera así no andaríamos lejos del nombre de persona Çorron antes señalado, véase &59’. (Liburu horretan 68-69 orrialdeak). Baina Zorron antroponimoa oinarritzat hartuta arazo bat sortzen da: -TZA atizkiaren adierazi bat eta lehena Azkuek *Diccionario...* horretan dioenez, hau da: sufijo derivativo, que se aglutina a nombres y forma palabras indicando ‘montón de’. Zorron antroponimoak hartu dezake atzizki hori? Ez ote dator egokiago –TZA atzizkia landare, edo beste gauza batzuei erantsita eta ez antroponimoei? (H)arri+tza > arritza eman du eta +luze > Arritza+luze. Azentuaren eragina kon-tuan izanik Arzeluz eta kideak eman ditu. ‘Zorrontza’ fonetikan oso ezaguna den fenomeno batek argituko liguke. Gure inguru-ko hizkuntza askotan eta gurean ere metatesia gertatzen da. ‘Cambio de lugar de los sonidos atraídos o repelidos unos por otro’ esaten du LAZARO CARRETER jaunak bere *Diccionario de términos filológicos*, s. v., 3. argitalpenean. Latinezko parábola hitzak gazteleraz ‘palabra’ eman du. Animalia-tik alimaña sortu da. Edo crepare hitzak quebrar eman du. Miraculum latinezkoak milagro eman du. Zornotzako hitzun batzuk *frabikia* esaten dute adibidez. Eta brabue (barboa) eta esprabela (esparbela), eta txorkoa. Beraz metatesia bizirik dago.

ETXANO. Mitxelena, *Fonética histórica vasca*, 2^a argit. 310. orrial. Erdiaroko ‘Cartulario de San Millán’ izeneko agirian Eg-gano forma agertzen da. ‘Hay un antropónimo medieval Ochoa escrito también ‘Oggoa’. (MITXELENA, *Fonética histórica vasca*, 2^a argit., 192. orrial. MITXELENAk bere lan ezagunean, *Apellidos vascos*, euskal sustraikoa dela esaten du. Orduko idazkeran gg horren soinuua gaurko bizkaierak zenbait tokitan duen [z] soinuaren antza zuen. Geroago euskaraz tx bihurtu zen. Beraz ‘etxea+no’ izango litzateke sustraia. –No hori ezin daiteke pentsatu euskarak euskalki batzuetan gorde duen di-minutiboa izango litzatekeela? ‘Se puede sostener que así co-

mo en calidad de vocativos TO y NO se distinguen en que cada cual se refiere a un sexo, así en calidad de sufijos de diminutivo habrán designado antiguamente el primero (con sus derivados -TO, -TXO, -TXU) el sexo masculino y -NO con sus redimutivo, por decirlo así, -ÑO, el sexo femenino'. (R. M. AZKUE, *Diccionario vasco-español-francés*, s. v. -TO. Eta MITXELENA, *Fonética H. vasca*, 2^a argit. 186. orrial.). AZKUEk bere *Morfología vasca* liburuan, I tomoan, 205. orrialdean, hau idazten du: -NO. Forma parte de *etxano* (S) casita y *eltxano* (R) pucherito...Aquella tendencia fonética, que se citó en su lugar de elidir la *n* en vocablos topónimos como Lemoa... parece que ha dado lugar a los vocablos suletinos *etxau*, casuca, y *bidau* sendero'. (sic). (Senderito agian zuzenago ez?) Orduan toponimo horren oinarria guztiz euskalduna izango litzateke. Gaur guk *etxetxo* esango genukeena. Txikiagotzaile hori forma arkaikoa da. Hemen beste dato bat izango genuke hizkuntzalarien teoria bat egiaztatzeko: hizkuntza baten esparruan formarik arkaikoenak bazterretan gordetzen dira. Badago beste toki bat horrelako atzizki arkaiko kutsukoa duena Amorebieta-Etxanoko lurraldean. Iturri batek 'Zubito' edo bertako erara esanda, 'súbitto' izena dauka. Iturri horren ondoan errekatxo bat dago eta seguruenik zubitxo bat zegoen, enbor batekin eginda. Eta iturriak izen hori hartu zuen. Baina tikiagotzaile hori bizirik zegoenean lurralde honetan, ez oraintsuko garaian. Badaude beste adibide batzuk Azkuek berak aipatzen dituenak *Morfología* liburuan, I tomoan, 209. orrialdean: '*zakuto* (AN, B, G) saquito, alforja. *Zubito* (B) pasarela o puentecito...Hoy el diminutivo *to* sólo se oye en algunos dialectos, limitado su uso a determinados vocablos, por hallarse ya fosilizado'. Herri honetan eta bizkaierako hainbat lekutan, *neskato* ere guztiz arrunta da. Forma zaharkitu batzuetan guganaino iritsi direntan gaur arte, badugu lekukotasuna.

ORUE. Badago 'oru' euskal hitza 'solar' esateko eta badago 'orube' bizkaieran gauza berdina adierazteko: 'solar' eta 'terreno para construir una casa'. Euskaran bokalarteko frikari oze-

nak erraz ezabatzen dira mintzatuan. Gainera hemen ere azen-tua lehengo silaban doa, azen-toa o-ren gainean ebakitzen delarik. Horrek erraztu egingo luke frikariaren galera. Inguru honetan denak ‘óruē’ esaten dute eta ez ‘orúē’. (*Apellidos vascos*, 95. orrialdea).

EPALTZA. Badago euskal hitz bat ‘egi, (h)egi’ ‘línea de los montes’ eta ‘ladera’ adierazteko. Herri honetan ‘Bizkargi’ toponimoan daukagu. Epaltza izeneko auzoaren egoera horixe da izan ere, mendi baten sorbalda edo hegia. Beraz Mitxelenak aipatzen duen (h)egi+baltza izan daiteke lurralde horren esanahia. (*Apellidos vascos*, 58-59. orrialdeak).

GARITONDO. IRIGOYEN zenak guztiz argitu zuen toponimo hau nire eritziz. Lehenago aipatu dudan bere liburuan, 82. orrialdean azaltzen du. Garai+eta+ondo bat egongo litzateke gaurko Garitondo izenaren azpian. Baserri hauen egoera ikusita, inguruan garai bat (parte alta) baino gehiago daukate eta horien ondoan daude. Hemen ere azen-toak izan dezake zerikusia bokalen galerarekin. Inork ez du esaten Garái, Gárai baino.

ALDANA. Hortik gorantza jarraituz, badaude beste baserri batzuk: Aldana goicoa eta becoa. Berriz IRIGOYENen berbak ekarri behar. Aipatutako liburuan, 56. orrialdean idatzi zuen: “Alda, term. de Zalla, 1863, “Ilosa y term. de Carranza, 1860”, comparable a “Aldana cuesta de Santurce, 1863”...del bajo lat. *altana, existiendo también aldendu, ‘separarse’ con el suf. -tu...” (Ibi. 56-57. orrialdeetan). Hemen gauza bitxi bat agertzen da. Gorantz dauden baserriei batzuk euskal izena eman zien. Eta gorago zeudenei berriz latin jatorrizko izena. Aldana inguru horretan bazegoela jauregi zahar bat esaten digu Iturri-zak. Agian Aldana izeneko baserriak zaharraogak ziren eta Garitondo izenekoak beranduago eraiki zituzten?

ASTAPE. Euskaldun batek toponimo hau esaten duenean, [ástape] ebakitzen du. Azen-toa azken silaban eta asta- euskal forma gordeta. Azkuek honela idazten du: ‘Asta (c) var. de AS-TO en los compuestos y derivados; al juntarse con nombre de

vegetales indica la idea de ‘silvestre’ (Diccionario vasco... s.v.). Hemen ‘asta’ den tokiko behekaldea adierazi nahi duela esango genuke. Erderaz esaten denean [astépe] esaten dute. Horrik erdal azentoaren eragina ikusiko nuke eta hortik asimilaketa e biren artean.

Badago auzo bat IXER izena duena. Bilbaora goazala 634 kaminotik, trenbidea igaro eta eskumara dago. Ez dut uste zeruko izarrekin zerikusirik duenik. Topografiaren egoerarekin lotuta agertzen dira toponimorik gehienak herri honetan. Bestalde toponimo txiki batzuk euskal hitzak gordetzen dituzte, ahozko euskaran hemen galdu direnak. Hauek kontuan hartuta, IZARRA, tamujo landareekin toponimo hau elkartzea ez dut uste hain oker legokeenik. Azentoa honek ere lehen silaban izango luke eta hitzak bukaeran duen –a galtzea hortik sortuko litzateke. Gainera badago beste baserri bat [Ixertzase-laia]. Izarra+tza+zelai jarrita argi agertzen da toponimoaren adierazia, eta hipotesi hau ez dut uste guztiz burugabea denik. –Tza honen adierazia Azkuek ematen du: “(AN, B) sufijo derivativo, que se aglutina a nombres y forma palabras indicando ‘montón de’” (Diccionario, s. v.). Beste toponimo batzuetan ere agertzen da herri honetan –tza atzizkia: Elortza, edo Ixertza Boroan. Baliteke gainera ízar zerukoaren azentoa, antzagatik, hitz honen azentua kutsatzea eta honek ere lehenengo silaban hartzea.

KORTEDERRA. Mitxelenak *Apellidos vascos* liburuan, 79. orrial., hau dio: “korta ‘sel, cuadra, establo (v. Gorta). Ae bokalen elkarketan, e gainditu da eta a ezabatu. Bokalak ezegonkortasun handia dute euskaran eta oraindino gehiago bizkaieran, bokale armoniak duen indarrarekin errez aldatzen direlako. Hemen ere hitz konposatua izanik, lehenengo osagaiaren azentoa gainditzen da: kórta, eta ez bigarrenarena: edérra.

ETXAKUSIÑAGA ahoz ETXAKUSIÑA. Etxeko isasinaga > etxako-ixixiñaga > etxako ixiñaga. Etxano hurbil dago eta Etxaburu ere egon badago bizkaieran. Badago baserri bat Isasi ize-

nekoa. Baina hemen Ixesi eta Ixixi formak erabiltzen dira ahozkoan. Ganera badago beste baserri bat Ixiñaga eta Ixiña deitzen dena. Ixixi konposatu baten datorrenean, –xi silaba errepikatua ezabatzea ez da batere desagokia fonetika aldetik, mintzairan dagon lege bat gogoratuz: ahalegin gutxiengoaren legea. Gainera errepikapenak kakofonia bat ere sortzen du. Atzizkia –aga edo –naga denean xuhurtu egiten du herri mintzairak: Ixiñaga >ixiña. Zuzundegi batetik Zuzuni sortu du herriak. Honelako beste xuhurketaren bat ere badago egon: Makatzaga, herriatarrentzat Makatza bihurtu da. Hor agertzen da Mitxelenak aipatzen duena Isasa azaltzeko: ‘Isats, itsa(t)s re-tama. En cuanto a Isasi deben tenerse en cuenta otras posibilidades: en primer lugar la forma vizc. (variedad de Cigoitia) isasi, ‘jaro’, que R. Lafon considera variante de sasi, con el mismo prefijo que ibar con respecto a barr-en o barr-u, o quizá también el participio itsa(t)si ‘adherido, agarrado’ sust. ‘grieta’. (o. c. p. 75). Baserriaren egoera ezagututa hemen ematen du ‘retama’ edo ‘jaro’ adierarekin zerikusi gehiago izango lukeela.

ZUZUNI. Zuzundegi izango litzateke oinarrizko forma. Zuzun edo *zuzun ‘álamo temblón’ eta –degi, –tegi. Atzizki honen adierazia hau da Azkuek dioenez s. v.: ‘Paraje cerrado y por lo general cubierto, en el que se cobija el ganado o se guarda alguna cosa. Eta beste hau: ‘2º (B) muchedumbre o porción’. Beraz zuzun pila dagon tokia adierzi nahi duela esango nuke nik.

OROMIÑO. Badago baserri bat Urumin eta apur bat ekialdera joanda, Oromino auzoa, zati bat Zornotzako herriarena eta beste zati bat Iurreta herriarena. Ez ete dago loturaren bat Urumin eta Orominoren artean? Irigoyen jaunak beste eritxi bat zuen: ‘cfr. para Elorrio Arabio, de tres sílabas en cast., pero Arámiño, incluso con asimilación de nasalidad, sin duda de un *Arabiano primitivo, Miota de dos sílabas en cast., pero Miñota, y en Yurreta Orobio, de tres sílabas en cast., pero Orómiñò’. (Irigoyen, *En torno a la toponimia vasca...* p. 147.)

ATEGORRI. Toponimo hau errez ulertzen da. Baina azpimarratzekoa da baserriaren izenak inguruko ate batekin zerikusia duela. Ematen duenetik herriak jarritako izena da, lehenago aipatu dudan Pike-park adibidearen antzera. Etxe horretatik 200 metrora gutxi gora-behera, harrizko marko bat zegoen ate batentzat. Eta gorritzka ei zen. Baserri horretara joateko biderik hubilena ate horretatik zegoen, eta hortik seguruenik izen hau. Zoritzarrez inguruko beste norbaitek orain 25 urte edo bota zuen ate hori inori ezer esan gabe eta XVIII gizaldiko eraikin txiki hori ezabatuz.

BERDALDE. Badago toponimia txikian solo bat izen hori duena. Alde guztietatik berdea dauka, argiagoa edo ilunagoa, baina berdea. Ez nuen inolaz ere ikusten nondik etorri zitekeen izen hori. Baina argi pixka bat eman zidan soloaren egoerak. Ipar aldera guztiz irekita dago, beste solo batzuk ere berdea inguruan dutelako. Baina ez izen hori. Eskumatik Bizkargirantzako aldapa dauka, baina gainontzean iparraldera guztiz irekita dago. Berde hitzaren adierazi bat ‘crudo, frío, desapacible’ da eta jakinik ekaitza iparraldetik zetorrenean solo hori oso osoan harrapatzen zuela, pentsatzen dut hor egon daitekeela izen horren sustraia. Ekaitz aldera dagoen soloa izan daiteke izen horren adierazia.

BERESI. Badago baso txiki bat basalandaraz betea eta inork ere garbitzen ez duena. Azkuek bere hiztegian, s. v. esaten du: ‘(Bc) jaro. Orduan hori izango litzateke izen horren adierazia, horrelako landaraz beteta dagona lur zati bat.

KATIA. Garai baten herrian janari, edari edo bestelako gauzak sartzeko zirenean, zerga bat ordaindu behar zuten. Gernikarantza goazala edo handik gatzela, Autzagane baino beheargoz Zornotza aldetik badago etxe bat zeregin hori zuena. Eta kate bat zuen ordaindu gabe inor ez igarotzeko. Hortik dator baserri horren izena.

ETXE GORRIA. Badago Larrea aldean izen hori duen etxe bat. Hau ere herriak ipinitako izena da kanpotik gorritz margo-tuta zegoelako.

ELORDI. Bizkargira bidean azken aldapa gogorra hasi baino lehenago, badago zelai bat eta ondoan lurralde lau xamarra. Orain ez dago elorririk baina garai baten ziur asko egon ziren eta hortik elorri + di, elorri lurra zela adierazteko.

BASABE. Basa berbarentzar honela dio Azkuek s. v.: “4º en palabras compuestas (siendo modificación de BASO) significa ‘silvestre”. “-be (c) sufijo local, que indica la parte baja” dio Azkuek s. v. Orduan argi dago adierazia.

Euba aldean ‘Txintxillena’ da baserri baten izena. Arkotxa-Bediaga, Austoa eta Saratzun, basa-makatzarentzat beste izen bat dago: Txintxili-makatz. Garai baten horrelako makatz asko zituen baserri bati Txintxilla edo Txintxillena (Txintxillak dituenarena) ez dut ikusten lar okerra denik. Amaierako -li hori ahosapaituko litzateke, aurrean duen -i- bokalak eraginda. Hemengo berbetan fenomeno zabala da hori. Orduan ‘Txintxillarena’ forma osoak hemengo ebakeran Txintxillena eman dezake. Eta izen hori ematen diote inguruetako euskaldunek.

IXEDU. Bazegoen baserri bat izen hau zuena. Orain jausita dago. Ergoien (erri+goien) auzokoek baserri honen odoan zegoen bidetik igaro behar zuten herrira joateko. Diccionario Retana de Autoridades delakoan begiratu, A. Lino Akesolok hitz honi susmo zuzena hartu ziola esango nuke. Honela definitu zuen hitz hori: ‘(Ba) ejido, campo común de todos los vecinos de un pueblo’. Casares jaunaren *Diccionario ideológico* deritzanak honela definitzen du ‘ejido’: ‘Campo de las afueras de un pueblo, común a todos los vecinos de él, y donde suelen reunirse los ganados o establecerse las eras’. Baina hitz horrek XVIII gizaldira arte bazuen beste forma bat: exido. J. Corominasen *Diccionario Crítico Etimológico de la Lengua Castellana* begiratzen badugu hitz honetan, azalpen hau ematen du: “ejido: campo a la salida de un pueblo, común a todos sus vecinos, donde suelen reunirse los ganados o establecerse las eras’ derivado del antiguo exir ‘salir’, 1º doc. exido 1.100 y en otros

documentos de los s. XII y XIII citados por Ölschl... El verbo *exir* que naturalmente se pronunciaba con x, es de uso general en los s. XII y XIII". 1726an Espainako Hizkuntzaren Erret Akademiak atera zuen *Diccionario de autoridades*. Hiztegi horretan *exido* forma dakar difinizio berdintsuarekin. Ez dut uste okerregia denik pentsatzea azentoaren eraginez metatesi bat gertatu zela, hau da, *exido*-tik hemengo hitzunek *íxedu* sortu zutela. Euskal forma honek nire eritziz, erdal forma zaharra gordetzen du neurri baten. XVI.XVII gizaldietan, geroago j, be-loko soinua zuena, x zen eta soinu hori zuen. Beraz ordura arte gaztelerazko hitza *exido* zen. Herri honetako euskaran hiru silaba edo gehiago dituen hitza erdrujula lez ebakitzen da. Eta azentoaren eraginez sortu zitekeen *íxedu*. Hor metatesi bat dago. Baserria eta lurra dauden lekua ezagututa, 'campo de las afueras del pueblo' da, eta desamortizazio aurretik izan zitekeen herriaren lurraldea. Baserriari berari eta bertakoei *íxedu* eta N-*íxedu* deitzen zaie gaur ere. Amaierako -o, euskaraz -u bihurtzea normala da. 'Vaso' hitzak basu eman du, lutotik lutu, bajo, baju, tabar. Ejido hitza etxe horren jabetza agiritan ere agertzen da. Honela idatzita dago: '...de la siguiente casa-casería de Amorebieta, casa denominada los Ejidos de nueva planta. Inscrito el documento que precede en tronco 19 del ayuntamiento de Amorebieta, folio 22, finca nº 879, inscripción 1ª... Durango 3 de enero de 1927. El registrador Nicolas Vicario y Peña'.

J. M. Etxebarria

ZIENTZIAGINTZAREN DEKALOGOA

1.- Ez dakit. Jakin maite/nahi dut, ezagutaria naiz. Jakin ahala, areago zabaltzen/sakontzen zait nire ezjakina. Nire jakin beharra ase ezina da.

2.- Bi eratako jakingaiak azaltzen zaizkit: a) hautariak hautamenez eginak direnez; b) eragile hutsek ezin bestez kausatuak direnez –kausalitatezko determinismoz eraginak-.

3.- Hautariak hautari ari direnez –hala gizakiak zientziagintzan dihardutenean kausalitatearen ez menpeko, jaun baizik-zientziaren sailetik at dauden izaki/fenomenoak dira.

4.- Nire zientziagintzaren azter eremua eragile hutsek ezin bestez –determinismo alda ezinaz– kausatutako izaki/fenomenoen izaera/bilakaera da.

5.- Zientziagintzan datu zientifikoak jasotzeko daukadan azter/abiapuntu bakarra behaketa da.

6.- Jasotzen ditudan kausalitatearen menpeko datuei buruz nire adimenez dagidan hausnarketan eraketa/azalpena da zientzia.

7.- Zientzia hutsez ezin dut jaso nire ikusmenaren froga objektiborik. Zientzia hutsez nire adimenak ezin du garatu nire behaketen balioaren frogarik.

8.- Beraz, zientzialari huts eran jardunez, nire zientzia ez da objektiboa; hau da, ez da zientziaz frogatutako behaketetan oinarritua.

9.- Nik, gizakik, ikusi egiten dudala dakit, beste ezeren/inoren laguntza edo frogarik gabe, aurretik.

10.- Gizaki zientzialari naizenez, nire zientzia –gizaki gisa dakitena onetsiz– zeharo objektiboa da nire subjektibotasunaren babesean.

Jenaro Garate

“JATORRIZKO” ERREGELA

KARMEL MENDIKO MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ORDENAKOA,
SAN ALBERTO JERUSALEMGO PATRIARKAK EMANA,
ETA INOZENTZIO IV.AK BERRETSIA*

[*Agurra*]

[1] Albertok, Jainkoaren graziaz Jerusalemgo Elizako Patriarka izatera deitua denak, Kristogan seme maite dituen B[rokar-do]ri¹ eta honen mendean [Eliasen] iturri ondoan² Karmel Mendian bizi diren gainerako eremutarrei Jaunagan osasuna eta Espiritu Santuaren bedeinkazioa opa die.

* 1206 eta 1214. urteen artean eman zien karmeldarrei Erregela San Albertok, Jerusalemgo Patriarkak. Lehenik Honorio III.ak onartu zuen 1226ko urtarrilaren 30ean. Geroago, Gregorio IX.ak 1229ko apirilaren 6an eta Inozentzio IV.ak 1245eko ekainaren 8an berretsi zuten. Azkenik, Inozentzio IV.ak berak baliozkotu zuen 1247ko urriaren 1ean, zenbait gauzatxo aldatuz; Hasierakoa edo jatorrizkoa deitzen zaio: “primera” edo “primitiva” (ik. Santa Teresa, V 36, 28; C 4, 2; F 17, 9...).

Euskarara itzultzerakoan latinetik gaztelaniara egindako itzulpena izan dugu kontuan; baita, zenbait ataletan, Lino Akesolok *Orduen Liturgi*arako egindako itzulpena ere.

¹ Vatikanoko Erregistroak eta kodizerik zaharrenek B. dakarte soilik, baina karmeldarrek geroago *Brokardo* zegoela horren azpian uste izan zuten.

² Vatikanoko Erregistroak “Iturri ondoan” jartzen du soilik. Eliasen izena geroago gehitua da.



San Alberto, Jerusalemgo patriarkaren zigilua (1206-1214).



Biblian Karmel mendia edertasunaren eta oparotasunaren sinbolotzat hartu eta goratzen da. (Sakonean Karmel elizako kupula)

[Kristori jarraitzea]

[2] Eliz Guraso Santuek askotan eta era askotara (ik. Heb 1, 1) arautu zuten nola bakoitzak –hautatu duen edozein egoera edo bizieran– bizi behar duen Jesu Kristorentzat *opari izanez* (ik. 2 Ko 10, 5), Hari bihotz garbiz eta kontzientzia onez zerbitzatuz (ik. 1 Tm 1, 5).

Baina zuek erabaki duzuen bizimodurako egoki den bizi-araudia ematea eskatu didazuenez gero, aurrerantzean nahitatez bete dezazuen:

[Nagusia eta lotura santuak]

[3] Lehenik hau agintzen dugu: zeuetariko bat nagusizat izan dezazuela, guztiok aho batez edo gehienen edota zaharrenen iritziz hautatua. Hari aginduko dio obedientzia gainerako guztietariko bakoitzak eta egitez eta egiaz betetzen saiatuko da (1 Jn 3, 18); konpromiso horrekin batera joango dira kasti-tatearen eta jabetzari uko egitearenak.

[Zuen egoitzarako lekuak]

[4] Eremuetan edo eman diezazkizueten eta zuen erlijioso-bizitza egiteko Nagusiaren eta anaien iritzira guztiz egokiak izan daitezen lekuetan jar zaitezke bizitzen.

[Fraideen gelak]

[5] Gainera, bizitzeko hautatutako lekuaren egoera kontuan izanik, zuetariko bakoitzak izan beza nagusiak, gainerako anaien edo zaharrenen onarpenaz, seinala diezaion gela bana-koa eta bereizia.

[Guztientzako mahaia]

[6] Hala ere, egizue hau ematen zaizkizuen janariak guztien jantokian hartuz, Liburu Santuetako atal bat batera entzuten duzuen bitartean, eragozpenik gabe egin ahal denean.

[Nagusiaren aginpidea]

[7] Inori ez zaio zilegi izango, orduan nagusi denaren baimenik gabe, seinlatu zaion gelatik aldatzea, ezta hura beste bategatik trukatzea ere.

Nagusiaren gela bizi diren tokiko sarreran kokatua egongo da, bisitariei harrera egiten lehenengoa izan dadin, eta gero berak erabaki dezan zer egin.

[Otoitz etengabea]

[8] Bego bakoitza bere gelan edo haren ondoan, gau eta egun Jaunaren legea hausnartzen (ik. Sal 1, 2; Jos 1, 8) eta otoitzean erne (ik. 1 P 4, 7), baldin beste legezko egitekoren batean egon behar ez badu.

[Orduen Liturgia]

[9] Ordu kanonikoak elizgizonekin errezatzen dakitenek, errezita bitzate Guraso santuek agintzen dutenez eta Elizaren bidezko ohituraren arabera. Ez dakitenek, hogeita bost aitagure errezatuko dituzte matutietan, igande eta bestaburuetan izan ezik; hauen bezperako ofizioan zenbaki hori bikoiztea agintzen dugu, hau da, Jaunaren otoitza berrogeita hamar bider errezatzea. Zazpi aitagure errezatuko dira goizeko gorespentetan, baita gainerako orduetan ere, bezperetan izan ezik, hauek hamabost errezatuko baitira.

[Jabetzari uko egitea eta ondasun erkidegoa]

[10] Inork ez beza izan ezer beretzakotzat. Izan ezazue guztia guztientzat (ik. Eg 4, 32; 2, 44). Nagusiak, ofizio hori betetzeko izendatu duen anaiaren bidez, emango dio bakoitzari behar duena (ik. Eg 4, 35), pertsonaren adina eta beharrak kontuan izanik.



Eliassen sakrifizioa; XVII. mendearen basierako freskoa (Siena, unibertsitateko klaustroa; antzina karmeldarren komentua izandakoa)



Karmel mendilerroaren begoaldeko isurialdea. Gailurrean, ezkerretara, el-Muhraqa-ko komentu txikia

[Guztien artean izan daitezkeen ondasunak]

[11] Asto edo mandoak, behar diren neurrian, eduki daitezke, baita hazteko zenbait animalia edo hegazti ere.

[Otoiztegia Jainkoa gurtzeko]

[12] Oker handirik gabe egitekoa baldin bada, gelen erdi inguruan otoiztegia eraiki ezazue, eta goizero hantxe bilduko zaretu meza ospatzeko, eragozpen handirik gabe egin ahal dezaizuenen behintzat.

[Espirituzko gaiez solasaldia eta elkarren butsak zuzentzea]

[13] Era berean igandeetan nahiz beste egun batzuetan, behar izanez gero, izan ezazue solasaldi bat elkarrekiko bizitzaz eta arimen salbamenaz. Bilera honetan anaien akats eta erruak ere zuzenduko dira maitasunez, inorengan halakorik izanez gero.

[Baraua]

[14] Gorde ezazue baraua egunero, igandeetan izan ezik, Gurutze Santuaren Goratze jaitik Jaunaren Piztuera egunera arte, baldin eta gaixoak edo gorputzeko ahultasunak edota zentzuzko beste arazoirenen batek hortik askatzea gomendatzen ez badu, beharrak ez baitu legerik.

[Haragi-uztea]

[15] Gorde ezazue haragi-uztea, baldin eta erremediatzat hartzen ez baduzue gaixoa edo ahultasuna gertatzen direnerako. Eta, bidaiak direla-eta, zeuen janaria sarritan aterik ate eskean bildu behar duzuenetz gero, etxetik kanpo jan zenitzakete okelarekin prestaturiko egoskariak, ostatu ematen dizuenentzat nekagarri ez izatearren. Baina itsas ibilaldietan okela jatea baimendua dago.

[Borroka espiritualerako armak]

[16] Gizakiaren bizitza lurrean borroka denez (ik. Jb 7, 1), eta kristau on izanez bizi nahi dutenek nork eraso izango dutenez (ik. 2 Tm 3, 12), eta deabrua zuen etsaia, lehoia orroka bezala nor irentsiko inguruan dabilenez gero (ik. 1 P 5, 8), ardurarik handienaz saia zaitezte Jainkoaren armak janzten, deabruaren maltzurkeriei buru egiteko (ik. Ef 6, 11).

Kastitate-gerrikoa lotu ezazue gerri aldean (ik. Ef 6, 14). Gogapen santuz ingura ezazue zeuen burua, idatzita baitago: “Pentsamendu santuak gordeko zaitu” (Es 2, 11, LXXen arabera). Jantzi bularrekotzat zintzotasuna (ik. Ef 6, 14), Jauna zeuen Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta indar guztiz maita dezazuen (ik. Dt 6, 5), eta lagun hurkoa zeuen buruak bezala.

Eduki beti besoan babeskitzat fedea, etsaiaren suzko geziak oro itzali ahal izateko (ik. Ef 6, 16), federik gabe ezinezkoa baita Jainkoaren gogoko izatea (ik. Hb 11, 6). Har ezazue buruaren estalgarri salbamena (ik. Ef 6, 17), salbamen hori Salbatzaileagandik baizik itxaroten ez duzuela, berak askatuko baitu bere herria bekatuetatik (ik. Mt 1, 21).

Espirituaren ezpata, hau da, Jainkoaren hitza (ik. Ef 6, 17) bebil oparo (ik. Kol 3, 16) zuen aho eta bihotzetan (ik. Erm 10, 8). Eta egin dezazuen guztia, egizue Jaunaren hitzaren eraginez (ik. Kol 3, 17; 1 Ko 10, 31).

[Lanerako joera]

[17] Lanen batean jardun ezazue, deabruak beti ekinean aurki zaitzaten³; alferkeria dela-eta ez dezala ikus Gaiztoak zuen ariman sartzeko zirrikiturik. Horretaz San Paulo apostoluaren irakatsia eta etsenplua duzue, haren bidez Kristo mintzo baitzen (ik. 2 Ko 13, 3) eta Jainkoak jentilei fedea eta egia hots

³ San Jeronimorengandik harturiko hitzak, Rustico-ri egindako 125. Gutuna: “deabruak beti ekinean aurki zaitzan, jardun ezazu lanen batean” (ML, 22, 1078).



Wadi 'ain es-siab. Eliasen iturria gaur egungo egoeran.



Haifa. Karmel Mendiko tontorra.

egiteko berriemaile eta maisu izendatu baitzuen (ik. 1 Tm 2, 7). Hari jarraituz gero, ezin inola ere huts egin. Hau idazten du: "Ez ginen zuen artean zabarkerian bizi izan; aitzitik, gau eta egun lanean nekatu ginen zuetako inorentzat zama ez izateko. Bagenuen zuen kontura bizitzeko eskubidea; baina lan egin nahi izan genuen zuei jarraibide emateko. Zuekin egon ginenean, arau hau eman genizuen: 'lanik egin nahi ez duenak ez dezala jan'. Zeren jakin baitugu zuetako batzuk zabarkerian bizi direla, ezer ez egiten zeregintsu. Horrelakoei Jesu Kristo gure Jaunaren izenean agintzen eta erregutzen diegu: bakean lan egin eta beren ogia irabaz dezatela" (ik. 2 Ts 3, 7-12). Hona hemen santutasunerako bide ona: hemendik ibili! (ik. Is 30, 21).

[Isiltasuna]

[18] Isiltasuna ere aintzakotzat ipini digu hemen Apostoluak, lanari hortik ekiteko agintzen duenean (ik. 2 Ts 3, 12). Eta Profetak dioenez: isiltasuna justiziaren lana da (ik. Is 32, 17). Eta beste behin: Isiltasunean eta uste onez itxarrotean izango duzue zeuen indarra (ik. Is 30, 15). Beraz, agintzen dugu isiltasuna gorde dezazuela arratseko otoitzaren amaieratik biharamuneko lehen orduaren errezoa egin arte. Denbora honetaz kanpo, isiltasuna gorde beharra hain zorrotza ez bada ere, arretaz saihestu behar da gehiegi hitz egitea, Liburu Santuek esana denez eta edozeinek bere burutan ikusirik dakigunez: "hizketa ugari, hutsegitea sarri" (Es 10, 19). Eta beste behin: "Neurrigabe hitz egiten duena higuigarri bihurtzen da" (Si 20, 8). Jaunak ere hau dio Ebanjelioan: "Bakoitzak esan dituen alferreko hitz guztien kontu eman beharko du auzi-egunean" (Mt 12, 36). Beraz, neur eta pisa bitza bakoitzak bere hitzak, eta atea eta morroiloak ezar biezazkio bere ahoari –ez dadila ahotik erraz labaindu eta erori, ez haren erortzea hiltzerainokoa izan (ik. Si 28, 29-30)–, hitzekin kontu izanez, Profetak dioenez, mihiaz huts egin ez dezan (ik. Sal 38, 2). Saia bedi bakoitza arduraz eta zentzuz isiltasuna, justiziaren lana dena, gordetzen (ik. Is 32, 17).



*Serafin Melchiorre-
ren obra: Elias
profetaren ikuskaria
Karmel Mendiaren
gainean.*

[Agintzearen zerbitzu apala]

[19] Zuk, anaia B[rokardo]⁴, eta zure ondoren nagusi izango den edonork, gogoan izan beti eta egitez bete ezazue zehazki Jaunak Ebanjelioan esana: “Zuen artean handien izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari. Eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi guztion morroi” (Mt 20, 26-27; ik. Mk 10, 43-44).

[Nagusiari obediencia adeitsua]

[20] Zuek ere, beste fraideok, begirunez eta apaltasunez hartuko duzue zeuen nagusia, harengan pertsona bera baino gehiago Kristo ikusten duzuela, Honek jarri baitizue nagusi izateko eta eliz artzainez hau esan baitzuen: “Zuei entzuten dizuenak niri entzuten dit, eta zuek onartzen ez zaituztenak, ni ez nau onartzen” (Lk 10, 16). Egizue horrela, auzi-egunean gaitzetsiak izan ez zaitezten agintariak gutxietsiz, eta bai zeuen obedienciaz, betiko bititza sari har dezazuen.

[Amaiera]

[21] Idazki honetako orrialde urrietan ematen dizuegu bizi-araudia, horren arabera bizi zaitezten. Hemen aginduen gainetik inork zerbait gehi baleza, Jaunak, bera datorrenean sarituko du. Hala ere, zuhurtasunez joka bedi, hura baita bertuteen neurri-emailea⁵.

[Luis Baraiazarrak itzulia]

⁴ Hemen ere B. ageri da soilik Vatikanoko Erregistroan (ik. 1. oharra).

⁵ Ziur asko Albertok Joan Kasianoren testua, *Colationes*, 2, 4, izan zuen gogoan: “Zuhurtasuna bertute guztien ama, zaintzaile eta moderatzailea da” (ML 49, 528).

KARMEL MENDIA ETA KARMELDARRAK ERREGELARREN 8. MENDEAN

Sarrera

Karmeldarren erregelaren laugarren mendeurrena (1206-1214) ospatzean, egokitza jo dugu gertakari honi lan bat eskaintzea, gure begiak Karmeldarren mugimendua sortu zen mendirantz, hau da, *Karmel* (Palestina) mendirantz jarriz. Ordenak talde-bizitza mota hau sortu zen tokitik hartu zuen izena: *Karmel* – Karmeldarrak. Eta aldizkari honek ere izen hori du: *KARMEL*.



Haifa. Karmel Mendiko tontorra itsasaldetik begiratuta.

Karmel Mendiak hainbat gertakari historiko, bibliko, espiritual, ... dakarzkigu gogora. Baina mendi hau bereziki Elias profetari loturik ageri zaigu. Ibilbide historiko hori luzea dugu bai denboran bai geografian: egin-eginean ere, milaka eta milaka urte eta bide luzea Palestinatik Euskal Herrira.

Hori horrela, gure lan honetako asmoa ez da *Karmel* Mendiaren eta Karmeldarren erregelaren adiera sakonki aztertzea, ikuspegi eta informazio orokorra eskaintzea baino. Hain zuzen ere, XII-XIII. mendeetan ermitauen eta zenobiten bizimodua, behar zituen aldaketak izan ondoren, Europara, eta bide batez Euskal Herrira, ekartzeko bide izan zen egoera geografikoa eta historikoa azaltzea.

1) **Karmel Mendia Biblian... (Elias profeta)**

Karmel Mendia 40 bat pasartetan ageri da Biblian. Horrela, esaterako, *Kanturik ederrena* deritzan liburuan, maitearen edertasuna goraiatzean honako hau dio: “*zure burua tente*



Karmel Mendia: Mediterraneoko landaredi tipikoa mendebaleko isurialdearen gainaldean.



Karmel Mendiko loreak.

Karmel bezala (7,7 kant.). Biblian *Karmel* Mendia edertasunaren eta oparotasunaren sinbolotzat hartzen da; Isaias ere *Karmel* Mendiaren edertasunari buruz mintzo da: “*Karmel Mendia eta Xaron lautada bezain eder*” (Is. 35,2).

Gailurrak 552 metroko altuera du. *Karmel* hitzak Jainkoaren mahastia edo baratza esan nahi du, baina, era berean,

bertako zuhaitz eta zuhaixkek osotzen duten landaredia aditzera emanez.

Mendi horretan ur gutxi izan ohi da; ondorioz udak nahikoa lehorrak izaten ditu eta neguak ugaritasunez jantziak... *Karmel* Mendia (Mediterraneo ertzean, Haifa-ko hegoaldean hasi eta luzeran 25 km. inguru ditu) zenbait sasijainkori (Baal, Zeus, Jupiter, etc.) eta, batez ere, Israeldarren Jainkoari, *Jabweh*-i, eskainitako mendia zen.

Biblian Elias profetaren egintza harrigarri bat jasotzen da bertan; egin-eginean ere, *Karmel* mendiko sakrifizioa. Bertan *Jabweh*, benetako Jainkoaren ahala agertuko da idoloen ezina agerian utziz (1 Erreg., 18); geroago mendi honi Elias jaunaren mendia ere deitzen zioten. Profeta honek (K. a. IV. mende-koa), Jainko biziaren sinesmenean gori-gori eginda zela, Israel herriak galtzeko zorian zuen egiazko Jainkoaren kultua defendatu zuen, su eta ke... Jainkoaren presentzia biziaren lekuko bilakatu zen, hainbat jazarpen jasan izan zituen arren. Profeta honen bizitza osoa beraren berba hauetan laburbil daiteke: “*Jauna, Jainko abalguztiduna, zureganako maiteminak erretzen nau*”. (1 Erreg. 19,10.14); esaldi hori jaso zuten karmeldarren ezkutuan, erlijioso bizitza bizitzeko bide nagusiaren nondik norakoak aditzera eman nahirik, hots, erlijioso bakoitzaren bizitzako eskaintza nahiz maite duen *Jabweh* (“*nik erakutsiko dizut nor naizen*”), Jainko pertsonal, bizi eta maitekorren presentzia bizi beharra aditzera emanez.

Hala ere, Eliasek *Karmel* Mendian izandako garaipenak ez zituen guztiz sustraietatik atera Israelen sakon errotuta jarraitzen zuten idolatria-ohiturak; Eliasek ihes egin behar izan zuen... Hala ere, profeten presentziak iraun egingo zuen Israelen, Jainkoarekin zuen hitzarmenenaganako fidelotasun-mezua zabalduz. Eta, egin-eginean ere profeten mezu horri eutsiko ziona Eliasek bere ondorengo aukeratu zuen Eliseo izango zen (1 Erreg. 19, 19-21; 2 Erreg. 2, 1-18). Eliseo profeta, ostera, jarraitzailez inguratuta ageri zaigu.

Hori horrela, ulertzekoa da, batetik, *Karmel* Mendiak, mendi sakratuak, mendez mende espirituzko zirrara aparta sortu izatea, eta, bestetik, Elizako Gurasoek (Atanasio, Jeronimo, Kasiano, eta abarrek.) Elias monasterio-bizitzaren eredutzat eta *Karmel* mendia leku santutzat jotzea; logikoa da, bada, mendeetan zehar bertan profeten jarraitzaileak izatea.



Haifa. *Stella Maris* monasterioa; museoa. K. o.ko II-III. mendeetako oroitzapena; *Karmel* Mendian egindako indusketa arkeologikoetan jasotakoa. Idazkia Zeus Carmelus jainkoaren goraitzamen bat da.

2) Historia eta arkeologia alorreko datu batzuk: erlijiotasuna

Elias eta Eliseo profetek *Jahweb*, Moisesen Jainko eta esklaboen askatzaile zenarenganako egiazko sinesmenaren alde ahalegin handiak egin zituzten arren, ez zen guztiz desagertu idoloen kultura.

Horrelako leku berezietariko bat kristauak “Eliasen koba” deitutakoa dugu; izen honetan du jatorria hebrearrek “*Ma’arat Elyahu*” deituak; mahometarrek “*Khader*” (Berdea) deitzen diote; izen horrek zerbait misterioitsua edo mitikoa dakar gogorra... Koba horren barrunbean hainbat inskripzio aurkitu ziren;

batzuk barrunbeko jainkoari eginiko otoi-tzak dira; hau da, he-leniarren eta erromatarren garaiko kultu paganoa adierazten dutenak. Halakoen artean aurkikuntza interesgarria izan zen *Hepiopoliseko Jupiter Karmel* jainkoari eskainitako ex-voto batean aurkitutako idazkia.

IV-VII. mendeetan zehar Palestinan izandako monasterioen mugimenduaren barruan monje bizantziarrak finkatu ziren batez ere. Hain zuzen ere, *Karmel* mendian bi monasterio eraiki zituzten: bata, Eliasen koban eta, bestea, tontorraren gainaldean, seguruenik Santa Marina (Margarita)

deitua. Horrela, bi monasterio bata bestearengandik hain hurbil izateak, behar bada, kultu paganoak ordezkatu nahia edo adierazten du. Hala ere, Kosroe II. persiarrak 614an eginiko inbasioaren ondorioz hondatuak izan ziren monasterio horiek. Bada *Karmel* mendian izandako monasterioen testigantzarik. Bertako indusketek monasterio baten presentzia (570) egiaztatzen digute: VI. mendeko erromes batek ere horren berri jaso



Israel. Wadi Fara. Lur Santuan monasterio bizitza hasi zuenetako San Kariton-en "laura".



Karmel Mendiko lurmuturra, Haifako badiako begoaldeko muga. Karmeldarren Stella Maris komentuarien multzo arkitektonikoaren ikuspegia.

zuen. Beste monasterioarenak, Eliasen kobakoaren aztarna arkeologikoak, berandukoak, Justiniano enperadorearen agintaldia baino geroagoak dira. VI. mendean, toki horretatik oso hurbil, *wadi 'ain es-Siah* deritzan haranean Eliseoren monasterioa izan zen, bertan aurkitu baitira bizantziarren garaiko antzinako ermitauen kolonia baten aztarnak.

3) XII. mendean: ermitauak

Lehen gurutzadan, 109an, Jerusalem hartu zuten, Jerusalemgo erresuma latinoa eraikiz. Palestinan eta Sirian zehar antolakuntza militarrek sortu zituzten lurraldeak babesteko. Era berean, Palestinara eraman ziren mendebaldeko bizitza erlijiosoen araberako moldeak. Esate baterako, *Karmel* mendiaren

hasieran kokatuta dagoen *Haifa*, gurutzatuen politika-haritik sortutako jaurerria izan zen XII-XIII. mendeetako aldirik handienean.

Dagoeneko baziren XII. mendearen erdialdean Eliasen koba (*Khader*) ermitau greziarrak; mendiaren gainaldean ermitauen beste kokaleku bat zegoen. Alabaina, 1187an Saladino musulmanak garaipen handia lortu zuen *Hattin*-en, Palestinako lurraldea latinoei kenduz. Gertakari honek eskualdeko ermitauen eta zenobiten bizimodua ia osorik desagertzea ekarri zuen; horietariko asko iparraldeko lurretan, *Karmel* mendiko gainaldetako mendi-katean babestu ziren. Hirugarren gurutzadan (1189-1192) latinoek Akre (*Akko*) eta itsasertz zati bat berreskuratu zituzten, baina, ez zuten Jerusalem hartzea lortu; hala eta guztiz ere, Saladinok eta “Lehoi-Bihotza” zeritzan Rikardok hitzarmena egin zuten hirirako sarbidea libre utziz. Jerusalemeko patriarka ere bere aulkiaz jabetu zen Akren...

Lehen gurutzadaren ostean Karmeldar Ordenaren etorkizunean interes handia izango zuten bi fenomeno gertatu ziren: batetik, ermitau bizitza Europako alde ugaritan eta Palestinan indartzea; eta, bestetik, zenbait lekutara, batez ere Lur Santuetera (baita Erromara eta Santiagora) erromes joateko gogo-zaletasuna ugartzea. Eta bi ideal horiek europarrek burutu zituzten.

Gurutzaden aldi honetan zehar mendebaleko batzuk, Elias profetak sortutako zirrarak erakarrira, nonbait, ermitau egin ziren *Karmel* mendian, batez ere *Porfiria* hiriak, gaur egungo Haifa-k, bere mende zuen maldan, Eliasen iturria deritzanaren ondoan, Santa Margarita monasteriotik hurbil. Hori XII. mendearen azken hamarkadan gertatu zen.

4) Eliasen koba, karmeldarren sorlekua. Ordenaren sorrera: San Albertoren Erregela

Baina, harako ermitau laikoak bateratu eta beraien bizimodua nolabait arautu beharrak ekarri zuen Karmeldarren lehen



*Eliassen koba, antzinako edukiontzia; garai batean bilobi modura erabilia.
Profetaren estatua itsasora begira.*

agiri idatzia: San Albertoren erregela. Alberto Jerusalemeko patriarka izan zen 1206-1214. urteen artean; epe horren barruan idatzi behar izan zuen, bada, erregela. Berezko koba-geletan nahiz haraneko haitzetan zulatutakoetan bizi ziren ermitauek beren bizimodua bideratzeko erregela bat eskatu zioten Patriarkari, ordura arteko bakarkako bizimodua talde-bizitza batean finkatzeko. Eta, horrela, Patriarkak Karmeldarren Erregela¹ idatzi zuen; horren ostean kapera edo oratorio bat eraiki zuten. Benetako “Monasterioa” izango zena *wadi ‘ain es-Siab* deituriko haranean XIII. mendearen erdialdean egin ahal izan zuten (1262. urte inguruan).

¹ ASV, Reg. Vat. 21, 465v-466r. Aita Santuaren kantzelaritzarako erregistroa da. Ez da jatorriko kontserbatzen. Erregelari buruzko lanak: Carlo CICONETTI, *La regola del Carmelo. Origine, natura, significato*, Roma, 1873. *Un proyecto de vida, la Regla del Carmelo*, Madrid, 1985. Silvano GIODANO (Zuzend.), *El Carmelo en Tierra Santa desde los orígenes hasta nuestros días*, Arenzano, 1994. Elias FRIEDMAN, *El Monte Carmelo y los primeros carmelitas*. Burgos, 1989. Bede EDWARDS, *The Rule of Saint Albert*. Aylesford – Kensington, 1973. Nilo GEOGEA, *María Madre y Decoro del Carmelo. La devoción a la Virgen en el Carmelo durante los tres primeros siglos de su historia*, Burgos, 1989.

San Albertoren Erregelak garrantzi handia ematen dio Jainkoaren hitzari Karmeldarren bizimodurako oinarriko gune bihurtuz. Testu laburrean hainbat aldiz aipatzen da Biblia; testuaren iturburu ere Jainkoaren hitza da; horretan oinarritzen da eta hitz horrek inguratuta ageri da.

Testua *“Kristogan seme maite dituen B[ro]kardolri eta bonen mendean [Eliasen] iturri ondoan Karmel Mendian bizi diren gainerako eremutarrei”* zuzenduta dago. Honako hauek narbarmetzen ditu:

- Helburua: *“Jesu Kristorentzat opari izanez, Hari bihotz garbiz eta kontzientzia onez zerbitzatzuz”*.
- Etenik gabeko otoitza: *“Bego bakoitza bere gelan edo baren ondoan, gau eta egun Jaunaren legea hausnartzuz eta otoitzean erne, baldin beste legezko egitekoren batean egon behar ez badu”*.
- Priorearen esanetara, *txirotasunean* biziz.
- Eguneroko jatekoa lana eginez irabaziz.
- Justizia, maitasuna eta Jainkoaren presentzia bizitzeko isiltasuna baliabidetzat hartuz.
- Honako hauek jotzen ditu espirituazko borrokarako armatzat: *“kastitatearen gerrikoa”* eta justiziaren bularrekoa, oso-osoan Jainkoa maitatzeko; *“babeskitzat fedea”* gaizkia gainditzeko; *“Espirituaren ezpata”*; Jainkoaren hitza...
- Penitentzia bideak: baraua eta haratuztea.
- Liturgia-otoitza: taldean (eta goizero meza santuan parte hartzea).
- Asteroko bileretan *“solasaldi bat elkarrekiko bizitzaz eta arimen salbamenaz”* aztertu behar zituzten.

Eta Erregela hori hitza hauekin amaitzen du: *“Idazki hone-tako orrialde urrietan ematen dizuegu bizi-araudia, horren*



Erdi Aroko komentuko sarrera. Sarrerako eskailera eta priorearen gela ikus daitezke.

arabera bizi zaitezten. Hemen aginduen gainerik inork zerbait gebi baleza, Jaunak, bera datorrenean sarituko du. Hala ere, zuburtasunez joka bedi, hura baita bertuteen neurri-emailea”.

Egiatan San Albertoren gutun honek ofizialki aitortzen du erakunde erlijiosoaren izaera. Hala ere, hainbat oztopo gainditu behar izan zituen guztiz onartua izan baino lehen.

Alberto patriarkari gonbidapena egin zion Aita Santuak 1215ean Erroman izateko zen kontziliaora (Lateran-go IV.a) joateko; bertan, Elizaren erreforma, eta zehazkiago esanda, horrehemenka sortzen ari ziren talde erlijiosoen bizimodu-erak aztertu nahi ziren. Hau da, mugimendu berriak lehendik aitortutako monasterio-bizitza kanonikoen barruan sartzeko bideak ezarri nahi ziren. Ondorioz, Albertoren Erregela ere garaiko berrikuntza bat izan zitekeen, eta, bide batez, galtzeko arriskuan egon. Karmeldarren kalterako Patriarkak ezin izan zuen kontzilioan parte hartu, hil egin baitzuten 1214ko irailaren 14an prozesio batean zihoala Akreko San Joanen.

Horrela, apezpiku batzuk eragozpenak jartzen zizkien karmeldarrei ez zutelako kontzilioak agindutakoaren araberrako



Zabalaldiaren ikuspegia, mendiko iparraldeko isurialdetik bartuta.

erregela. Hori zela eta, Honorio Aita Santuarengana jo zuten zeukaten “bizimodua” onartzeko eskatzera. Aita Santuak 1226ko urtarrilaren 30ean eman zien baimena Karmeldarrei Alberto patriarkaren erregelari jarraituz bizitzeko, horrek, bide batez, onarpena zekarkielarik.

Baina, oraindik ez zutenez lehenagotik eratuta ziharduten beste monakoen Ordenen askatasunik berriro jo zuten Erromara. Gregorio IXak berretsi egin zuen erregela 1229an, bere aurreko Honorio IIIak urratutako bidetik jardunez; era berean, ondasunak izateari zegokionez, aldaketa bat ezarri zuen erregela hartan.

1231. urtearen inguruan ermitau haiek “*Karmel mendiko senideak*” deitzen ziren. Hurrengo urteetan dagoeneko bazituzten ermitau horiek monasterio txiki batzuk *Karmel* mendian ez ezik Akren eta Tiron. Egoera oso larria izan arren, Palestinan geratzen ziren ermitauak *Wadi ‘ain es-Siab* deritzan *Karmel* mendiko haranean monasterio handi bat eraiki zuten 1263an, eta Ordenaren Mariaganako espiritualtasuna aditzera emanaz “*Karmel Mendiko Santa Maria*” deitu zuten; espiritualtasun hau oinarritzko zera izan zen talde-bizitzari hasiera eman ziotenetik bertatik... Musulmanek Haifa menpe hartu zutenean (1291), zenbait monasterio hondatu zituzten; “*Santa Maria*” monasterioan geratutako erlijiosoek ihes egin beharrean izan zirelarik.

5) Europara

Federiko II enperadoreak gurutzadari amaiera emanaz, 1229an hamar urterako bake-hitzarmena egin zuen *Malik al-Kamen* sultanarekin. Hitzarmen hau gaizki ikusia izan zen erlijiosoen artean. Geroago eta zailagoa zen Karmeldarren egoera. 1239an porrota izan zuten gurutzatuek Gazan. Era berean, 1244an Jerusalem hartu zuten egiptoarrek. Urte horietan ermitauen egoera hain larria izanik, batzuk beraien herritara itzuli



Elizako habeartea, ekialde-mendebaldeko norabidean begiratuta.

ziren. Emigrazio hori 1230eko hamarkadan eta 1240ko lehen urteetan gertatu zen.

Horrela ageri da Inozentzio IV.aren idazki batean: “*Paganoen jazarpenek gure seme kutun diren Karmel mendiko ermitauek, bihotzak atsekabez beterik dituztela, toki hura utzi eta itsasoz bonantz pasatzera behartu dituzte*”.

Palestinatik kanpo izan zituzten lehen eraikuntzak honako toki hauetan izan ziren: Txipren, Mesinan (Sizilia), Valenciennes-en (Frantzia), Aylesford eta Hulne-n (Erresuma Batua), Les Aygalades-en (Probenza), etc.

Europar Karmeldarrek Palestinan izan zituzten arazo juridikoak aurre egin behar izan zieten, izan ere arrotzak eta ezezagunak baitziren. Inozentzio IV Aita Santuak esku hartu zuen etorri berri ziren ermitauek aldeko gomendioak eginez.

Bestalde, garai hartako egoera ongi ulertzeko, gogora ekarri behar da XIII. mendeko lehen aldean erlijio mugimendu garantzitsuak sortu zirela Europan: frantziskotar, domingotar, etab.; hau da, ebanjelioa txirotasunean eta ebanjelioetako apaltasunez predikatzen ziren Ordena “mendikante edo eskekoak”.

Ermitauek bizimodua egiten zuten Karmeldarrek oinarritzko arazo bat izan zuten Europako giroan, eta beharrezko aldaketak egin behar izan zituzten irauteko, euren bizimodua “eskekoen” bideetara egokituz. 1247an egin zuten lehen kapitulu orokorra, Aita Santuarengana jotzea erabakiz. Horrela, Inozentzio IV Aita Santuarengana bidali zituzten Reginaldo eta Pedro fraideak Albertoren erregela egoera berrietara egokitzeko eskaria egitera; hau da, zenbait zalantza argitu eta zuzentzeko, eta erregelako laztasun batzuk arintzeko eskatzera. Erantzuna 1247ko urriaren 1ean jaso zuten *Quae honorem Conditoris* gutunaren bidez, Karmeldarren erregela, egindako aldakek erantsita, argitara emanaz. Egindako aldaketak, itxura batean, oso txikiak izan ziren arren (eraikuntzak basamortuetan ez ezik hirietan ere egin ahal izatea, jatorduak taldean egin beharra, isiltasun nagusia konpletak esatetik prima esatera bitartekoa izatea, ibiltariei eta gaixoei haratuztea arintzea, orduen otoitzean aldaketa txikiren batzuk...) aldaketa handia ekarri zieten bizimoduan.

Eta baliteke aldaketa hauen sakoneko asmoa, nahiz eta ez agertu idatzita, apostolutzan jarduteko gogoia izatea; bide horretatik dator, erregelari egindako aldaketa hauek baino zertxobait lehenago, 1247ko uztailaren 26an emandako *Paganorum incursus* bulda argitara emana izatea.

Karmeldarrek egunetik egunera gehiago ekin zioten apostolutza-lanari, eta horretan jarduteko pribilegio batzuk lortu ere



Wadi-ko begoaldeko isurialdean zulatutako kobak; garai batean, seguruenik, ermitauen bizilekuak izan ziren.

bai. Eragozpenak eragozpen finkatuz joan ziren. Honorio IV Aita Santuak (1285-1287), aurreko Aita Santuen jardun-bideak alde batera utziz, babesa eta laguntza eskaini zien Ordena txiki, horien artekoak zirelarik Karmeldarrak.

5) Euskal Herrira... (XIII-XIV. m.)

XIII. mendeko bigarren aldia, historian zehar izan duen zabalkunderik handiena izan zuen *Karmeldarren Ordena Eskoak*. Mende horren amaieran 12 probintzia zituen eta 150

etxe, horien artean agertzen direla Akitaniako eta Espainiako probintziak.

a. Baiona (1250)

Ez dago otoitz eta lan babestoki honen aztarnarik; bakarrik *Rue des Carmes* kalearen izena. Karmeldarrak XIII. mendearen erdialdean ezarri ziren Baionan *Raimund de Donzac* (D'Onzac) apezpikuaren egunetan. Harresietatik kanpo, *Tarride* auzunean elizaren eraikuntza bukatzean, 1264an, Karmeldarrek eta apezpikuak (kapituluaekin) hitzarmena egin zuten.

1511n, Frantzia eta Espainiaren arteko gerra zela eta, hiria inguratua izateko arriskua zegoela ikusirik, zemaitua izan baitzen, bota egin zuten Karmeldarren eraikina Frantzisko Gyenneko gobernadorearen aginduz. Eta Gobernadore berberak, prioreak eta Karmelgo Amaren kofradiako lau kide arduradunek eskaturik, baimena eman zien Karmeldarrei 1511ko abenduaren 23an *Port-Neuf* auzoan etxea eraikitzeko. 1513. urtearen inguruan bertan 14/15 apaiz, lau/bost diakono eta hiru anaia ez-apaiz zituen.

Andre Mariaren kofradiak esku-hartze garrantzitsua izan zuen; sexu bietako erlijiosoek eta laikoek osatzen zuten, 1352ko estatutuei jarraitzen zietela. Hala ere, Baionako *Karmel* etxearen babespean baziren beste kofradia batzuk ere: Garbikundearena (XVII); Eskapularioarena (1637-VIII-3), hilero bigarren igandean meza izaten zuena, etab. Frantziako iraultzaren ondorioz etxea ixtean 11 erlijioso ziren.

b. Nafarroa (XIV-XIX. m.)

Espainiako lurralde barruan **Sangozako** dugu, Hueskako-arekin batera, lehen fundazioa; Felipe III, Frantziako erregeak 1277ko apirilaren 1ean agindu zion Nafarroako gobernadoreari Karmeldarrei Sangozan bizitzeko eta eraikin bat egiteko baimena eman ziezaien.

Martin Zalba Iruñeko apezpiku iruindarrak (1377-1403) 1379eko urriaren 1ean elizbarrutira heldu zenean egin zuen lehenetariko egintza erregearekin Sangozan elkarrizketatzea izan zen; eta bertan Nafarroaren eta Gaztelaren arteko gerrak eka-rritako hondamenak ikusi ahal izan zituen; hainbatean deseginda zegoen Karmeldarren komentua. Hilabete batzuk lehenago, ekainaren 6an, akordio bat izan zen Karmeldarren eta Santiagoko eta San Salbadoreko bikarioen artean, komentua, beste bat eraikiz, herri barrura aldatzeko baldintzak zehaztuz.

1380ko azaroaren 20an, Klemente VII. antipapak eman zien Karmeldarrei Sangozako harresien barruan komentua eraikitze-ko behar zuten baimena. 1381eko otsailaren 25ean sinatu zen Karmeldarren eta udalaren artean aldaketa egiteko hitzarmena; eta 1388ko martxoaren 5ean aldatu ziren.

Iruñeko Karmeldar oinutsen fundazioa 1330. urtearen inguruan egin zen orduan Nafarroako errege-erreginak ziren Ev-reux-eko Felipe eta Juana jaun-andereei esker. Inozentzio VI Aita Santuak 1356ko abuztuaren 5ean eman zien baimena Karmeldarrei zeukaten komentua utzi, eta hiriko harresi barruan beste bat eginik bertara aldatzeko; bazen, baita ere, beste arrazoi bat, hots, gerra-mehatxupearan bizi zirenez, hura egiatan gertatuz gero eraikinaren hondamena gertatzeko arriskua.

Karlos Nafarroako erregeak 1374ko ekainaren 1ean eman zuen eliza eta komentua hiri barruan eraikitze-ko baimena; hain zuzen zere, Pedro de San Martin prioreak eskatuta. Errege berberak eman zuen 1375eko otsailaren 10ean “Joan Cruzat, Erreinuko zaldun nagusiak” Karmeldarrei kendutako ondasu-nak itzultze-ko agindua ere. Tuterako komentuari fundazioa askoz ere beranduago, 1591ean, izan zen.

Aipatu beharra dago Karmelgo komentuak sarritan izaten zirela Ordenako ikastetxe, eta nabarmena izan ohi zela beraie-tan unibertsitate-bizitzaren eragina irakaskintzaren nahiz argita-ra ematen zituzten obren ondorioz.

6) Maria eta Karmel mendia

Aipatu dugu lehenago, Elizako Guraso hainbatek Elias profeta monasterio-bizitzako eredutzat jotzen zutela, eta bizimodu hori *Karmel* mendiari loturik ageri zela. Ebanjelioan ere Joan



*Siena. San Nikolasen eliza: Andre Maria Umearekin.
Tradizioaren arabera, Karmeldarrak ekarri zuten Ekialdetik.*

Bataiatzailea basamortuan bizi zen ermitau bezala ageri zaigu. Jesusek, bestalde, Elias egiatan etorria zela Joanen espirituan esan zuen.

Bazen, hala ere, gogora ekartzeko den beste zer berezi bat, Erregelari argi adierazita agertzen ez den arren: *Karmel* mendiak Mariarekin izan zuen lotura. Askoz beranduago, 1324an Bartzelonan emandako konstituzioetan argi eta garbi esaten zen ermitauet *Karmel* mendian eliza bat eraiki zutela Andre Mariaren ohoretan; baita, Maria *hartu zutela* titular eta babesle izateko; eta “*Maria dohatsuaren senideak*” deitzen zirela.

Bada, bestalde, Ordenaren zabalkundea bideratzen duen gertakari bat. Alberto patriarkak erregela eman eta epe laburrera eraiki zuten elizaxo edo oratorio bat *Karmel* mendian, eta Andre Mariari (*Karmel Mendiko Andre Maria*) eskaini zioten, Karmeldarren Ordenak historian zehar izango zituen Mariarenganako deboziozko bizitza eta espiritua jaso zuelarik. Lehen oratorioa Andre Mariari eskaintzea, Jesusen Ama Mariaren aldeko aukera egitea izan zen, *Karmel* mendiko ermitauet gogoak eta buruak berari eskainita bizi nahi zutela aditzera emateko erarik ederrena. Lehen oratorioa berari eskainiz “zaindaritzat” hartu zuten. Esan bezala, horrek bizitzak berari eskainita bizitzeko gogoia adierazten zuen, hain zuzen ere, beraren antzera Jainko Aitaren borondatearen “esanetara” bizitzekoa. Gerrogo, Mariari “*Karmel Mendiko Ama*” deituko diote, aurrerantzean semeen eta amaren arteko harremanak nabarmenduz; horrela, beren espirituzko bizitzaren sortzailatzat joko dute, hainbatean Elias profeta zen bezala. Harreman estu horrek Maria Karmeldarren Ordena barruan “arriba”, bidelagun eta erlijio-bitzako erredutzat hartzea ekarriko zuen.

7) Teresa eta Erregela: erlijio-bitzita egiteko era berria

Santa Teresak (1515-1582) Karmeldarren erlijio-bitzita bizitzeko era berriari hasiera eman zionean (1562), “hasierako erregela” edo “lehen erregela” deitzen zenari jarraitzeko asmoz egin zuen, hots, San Eliasen eran Jainkoaren zerbitzuan, honen presentzia bizi izan zuten lehen ermitauen espiritua berriartzeko asmoz. Egia esan, Teresak oso gutxi zekien erregelaren

ibilbide historikoari eta izan zituen gorabeherei buruz; hau da, erregelak izandako aldaketei eta aita santu desberdinek ezarritakoei buruz. Hala ere, “hasierako erregela” zen berarentzat abiapuntu, bizibide eta sinbolo.

Jesusen Teresak eta bere adiskide mina eta bidelagun izan zen Ana San Bartolomek bizitasun handienaz bizi izan zuten hasierakotzat jotzen zuten erregela, batez ere zerik garrantzitsuenean edo barruko espiritualtasunaren iturburu zenean. Egin-eginean ere, honako hau jotzen zuten erregelaren abiapuntu, helburu eta bizibide edo bizimodutzat: “*Buruak Jesukristori eskainita bizitzea*”. Eta hau sakon bizi ahal izateko estilo edo modua honako hauetan gauzatu zuten: isiltasunean, bakardadean. Hain zuzen ere, isiltasuna eta bakardadea Kristorekin bat eginda haizpeen artean bizitzeko.

Beraz, beste ezeren gainetik, lehena eta garrantzitsuena *buruak Jesukristori eskainita bizitzea* izango da; eta, horretarako, isiltasunean eta bakardadean (ermitauen bakardadean edo haizpeen arteko elkarteko bakardadean) bizitzea aukeratzen da; gainerako bertute guztiak: txirotasuna eta lana, salmo bidezko aintza, Liburu Santuen irakurketa nahiz penitentzia egintzak (bakarrekoak nahiz taldekakoak)... horretarako bide izango dira. Gehiago, oraindik, elkarte barruko solasaldiak ere (Jesusen Teresaren eta San Bartolomeren Anaren arabera) bereziki isiltasunaren edota bakardadearen zerbitzuan izango dira, guztiak aipaturiko helburu edo helmuga handia dutela: era berean bakardadean eta taldean bizitzea, hots, ahalik eta erarik onenean eta sakonenean Kristorekin eta Kristorengan bizitzea.


8) Aita Prospero, Karmel mendiko karmeldar bizitzaren berritzailea (1583-1653)

Sorburuetara, hau da, Karmeldarren jatorrira itzultzeko ideia bizi-bizirik zebilen XVII. mendearen hasieratan. Jesus eta Mariaren Pablo Simon (Ravarola) Aitak, geroago Ordenako jenerala izango zenak, proiektu bat aurkeztu zion garai hartan Or-



Aita Prospero Espiritu Santuarenaren erretratua (XVII. m.)

denako jenerala zen Jainkoaren Amaren Pedro Aitari, eta honek Aita Santuari. Honek ez zuen egokitzat jo, baina, misiolariak eskatu zizkion Persiarako. Horrela, Karmeldarrak misiolari joan ziren Persia, India, Siria eta beste zenbait herrialdetara. Eta, hain zuzen ere, misiolari batek jarri zuen abian karmeldar bizitza berriro *Karmel* mendian.



Emir ahmed Turabay emirrak 1631-XI-29an Espiritu Santuaren Prospero Aitari Eliasen koban, Karmel mendiko tontor azpian kokalekua egiteko baimena ematen zion agiria.

Karmeldar misiolari handia izan zen Martin Garayzabal (Prospero Espiritu Santuarena) Errioxako Nalda-ko semea zen. Erroman, *Eskalako Santa Maria* etxeko karmeldarren nobiziatuan sartu, eta 1608an egin zuen profesia. Bi urte egin zituen bakardade osozko bizitzan Varazze-ko bakardade-etxean. Gero, misiolari izan zen Ispahán-en (Persia/Iran) 1621-1624 artean; ondoren, Alepon (Siria) 1627-1631 artean.

1931ean *Karmel* mendian ageri zaigu, bertan biziko delarik 1633tik aurrera herioztzara arte (1653).

Berak eskuratu zuen *Karmel* mendiko jabeztza; horretarako *Ahmel Tarabel* emirrarekin sinatutako agiriak 1631eko azaroaren 29ko data dauka. Berehala hartu zuen *Karmel* gaineko antzinako monasterio eta etxeen ardura; ez, baina, *wadi 'ain es-Siab*-eko aztarnena; hauek 1881ean berreskuratu zituen Ordenak.

Aita Prosperok karmeldarren etxeak eta lekuak ez ezik karmeldar bizimodua ere berreskuratu zuen Eliasen Iturriaren eta *El Khader* o Eliasen kobaren ondoan. Misiolari handia izateaz gainera, kontenplari handia ere bazen, eta *Karmel* mendian



Karmel mendia. El-Khader kobako gaur egungo sarrera, karmeldarrek garai batean profeten eskola deitzen zutena.

bakardadeko ermitauen antzerako bizimodua antolatzen jardun izan zuen. Bizimodu hori eten egin zen musulmanek 1291ean Haifa beren menpe hartu zutenean.

Orain dela gutxi bildu eta argitaratu dira beraren idatziak²: hots, misiolari modura Ispahán-en, Alepon, eta *Karmel* men-

² Argitalpen hau orain dela gutxi hil zen Aita Victor Zubizarreta, Apozagako semeak prestatua dugu: PROSPERO DEL ESPIRITU SANTO (1583-1653), *Relaciones y Cartas*. Roma, 2006, XLVI -976 orr. (Monumenta Historica Carmeli Teresiani, 23).

dian egindako egonaldi buruzko 16 idazki, eta Ordenako misioen historiarako balio handia duten 157 gutun.

9) Joan Bautista San Alejorena (1723-1802), komentu berriaren eraikitzailea

Zentano-n, Turingo elizbarrutian jaio zen 1723an. Mondovi-ko komentuan sartu zen eta karmeldar anaia ez-mezakoa egin, 1747an profesatuz. 1765ean bidali zuten *Karmel* mendira. Eta hurrengo urtean ekin zion aspalditik bertan behera utzita zeuden eraikinak konpontzen. Horrela, 1767an, Prospero Aitak eraikitako eraikin txikia bota eta leku berean komentu berri bat eraikitzen hasi zen; Joan Bautista anaiak hainbat bidaia egin zituen Egiptora eta Europara komentua eraikitzeko diru-laguntza bila. Baina, obra honek hainbat eragozpen izan zituen.

Joan Bautista anaiak Italiara itzuli behar izan zuen 1774an, eraikina bukatu gabe utziz. Turin-era bidali zuten eta bertan hil zen 1802an. Liburu bat idatzi zuen *Karmel* mendiari buruz, lehenengo latinez (1772) eta, gero, italieraz (1780).



Joan Bautista San Alejorenaren liburuko portada.



Juan Bautista Casini Karmel mendiko komentuarien eraikuntza zuzentzen. Oibal gaineko olio-pintura; Haifako Stella Maris komentuan dago.

10) Karmeldarrak Palestinan/Israelen (XX. mendea)

Karmeldarren Ordenak, izena ematen dion *Karmel* mendian sortu zenetik, ibilbide historiko luzea egin du munduan zehar (XII-XXI), teologia-adiera berezia ere hartu izan duelarik: hots, “*Elizaren bihotzean bizirik*”, hainbat santuen esperientzia eta jakituria mistikoan gauzatu izan den espirituzko aberastasun unibertsala.



*Haifako golkoa eta Karmel Mendia airez ateratako argazkian begotik ekialderantz.
Leben planoan Stella Maris komentua.*

Lerro hauek amaitzeko karmeldarrek XX. mendean *Karmel* mendiaren inguruetan, Palestinan/Israelen, Jesusen lurraldean izan duten presentzia gogora ekarri nahi dugu laburkiro bada ere.

A) Fraide Karmeldarrak

a. “*Stella Maris*”

Idazlan honetako aurreko lerroetan *Karmel* mendiaren gainean den komentuari eta jasan izan dituen gertakari historikoei



Karmeldarren presentzia Lur Santuan.

buruz jardun izan dugu. Une honetan bertan den komentua *Stella Maris* (Itsasoko izarra) deitzen da; V-VI. mendeetan toki horretan izan, eta persiarrek, seguruenik 1614an, hondatu zu-

ten monasterio bizantziarra egon zen tokian kokatuta dago. 1766an hasi zen Jon Bautista komentua eraikitzen, baina amaitu gabe (eliza amaituta eta ostatu bat eginda) utzi zuen... Urte asko geroago, *Francis Stuart Lamb* ingeles karmeldarra izendatu zuten *Karmel* mendiko bikario; 1919an heldu zen bertara; une hartan soldatu ingelesek hartu zuten beraiantzat komentu hura. Baina, Aita Francis karmeldarrak komentua berreskuratzeari lortu zuen. Geroago, 1980. urtearen inguruan, berriztatu ziren eliza, *Karmel Mendiko Amaren* estatua, etab.

b. *Haifa-ko egoitza* (1767-1950): parrokia eta parrokia-eskola arabieraz.

c. *Haifa-ko parrokia latino* (1948-1993).

d. *El-Mubraga*, kultu-tokia; tradizioaren arabera Elias profetak Baal adoratzen zutenen aurkako erronka egin zuen tokia.



El-Mubraqa elizaren fatxada, komentuaren eta lautada panoramikoaren artean kokaturik dagoena.

480 metroko altueran kokatuta dago. XII. mendean jadanik, hebrearrek benerazioa agertzen zioten Eliasi. 1858an Karmeldarrek ermitau-etxe bat eraikitzea erabaki zuten. Horrela, 1883an eraiki ziren kapera eta komentu txiki bat.

e. *Jerusalem.*

1934an hiru karmeldarrek fundazioa egin zuten dominikoe-na izandako etxe apal batean. Lau urte egin zituzten bertan, eta, gero, *Baka* auzo hebrearrera aldatu ziren, bertan eraiki baitzen Karmeldarren biblia-ikasketen zentroa. Gerra-garaian militarrek okupatu zuten etxea. Geroago, 1992an, etxe bat lortu zuten *Notre Dame Centre* Pontifize-Institutuaren ondoan, Aita Alfonso Gil izendatu zutelarik bertako nagusi.

B) Moja Karmeldarrak

a. *Santa Teresaren Abizpa Karmeldarrak* (Florentzia)



Haifa. Santa Teresaren karmeldar abizpa. Karmel mendiaren magalean gaur egungo eskola-eraikina, handitze-bidean.

Gurutzeko Teresa Maria beatak sortutako kongregazioa da; Santa Teresari eta beraren *Karmel* Ordenari loturiko familia; otoitzean eta apostolutzan jardun izan dute: 1907an atera ziren beraien lehen misiolariak Haifa-rantz, Pio X.ak bultzatuta eta bedeinkatuta; apostolutza Aita Karmeldarren parrokia latinoan burutzen zuten; 1923-1924an 350 ikasle izango zituen ikastetxea ireki zuten. 1972an, 700 ikasletik gora zituen.

b. *Isfiya, San Joseren Karmel* (San Joseren Karmeldarrak)

San Joseren Karmeldarrak kongregazioko lehen ahizpak (Frantzia) 1921ean kokatu ziren *Karmel* mendiaren gainaldean dagoen *Isfiya* herrian. Pertsona zahar eta gaixoak laguntzen, haurrei heziketa ematen, neskakilen eta amen lanbide-heziketan, eta antzerako gizarte zereginetan dihardute lanean.



Isfiya. San Joseren Karmeldarren etxea.

c. Jerusalemgo moja karmeldar oinutsak

Frantziako karmeldarrek sortu zuten *Gure Aita* deritzan monasterioa; Jesusen Bihotzaren Javier amak jarri zuen monasterioaren lehen harria 1875eko apirilaren 12an. Urtebete lehenago ireki zuen Jerusalemgo patriarkak *Gure Aita* santutegia. Aurelia de Bossi, *Tôur d’Auvergne*-ko printzesak eman zuen monasterioa eraikitzeko babeseta eta laguntza.



Jerusalem. Pater Noster monasterioa. Klaustroa.



Belen: gaur egungo monasterioa.

d. *Belengo moja karmeldar oinutsak*

Jesus Gurutzatuaren Maria beata, Pau-ko profesa arabiarra izan zen Belengo *Karmel* honen animatzailea. 1875eko irailaren 11n heldu zen Belenera hamar karmeldarrek osatutako taldea, irailaren 24an izan zelarik ospez beteriko irekiera. Taldea urtebetez aldi baterako etxe horretan bizi izan zen, eta 1876ko azaroaren 21ean aldatu ziren etxe berrira. Behar zuten diru-laguntza handia *Berthe Dartigaux* andereak eman zien.

e) *Nazaretoko moja karmeldar oinutsak*

Nazaretoko *Karmel* fundazioaren animatzailea ere Jesus Gurutzatuaren Maria beata izan zen. 1878an erosi zuen partiarztza-ko kantzilerrak, Erromak baimena eman ondoren, *Karmel* erai-kitzeko lurra. Belengo moja batzuk joan ziren maiatzaren 18an



Nazareth: Karmeldar oinutsen komentuko klaustro nagusia.

lekua ikustera, beraien artean zelarik Maria. Baina, hau handik laster hil zen 1878ko abuztuaren 26an. Gorabehera asko izan zituen fundazioak. Azkenean, 1910eko azaroaren 14an inauguratu zen Nazaretoko *Karmel*.

f. *Karmel mendiko moja karmeldar oinutsak* (Haifa)

Zortzi karmeldar frantsesek, Jesusen Bihotzaren Maria zutela buru, jarri zuten talde-bizitza abian *Karmel* mendiko *Karmel*



Haifa. Karmeldar oinutsen monasterioa; elizaren fatxada.



Haifako golkoaren ikuspegia. Zirkuluan hasierako monasterioa.

etxean, 1892ko urtarrilaren 1ean. 1930ko hamarkadan eraikitako monasterioak handiegia dela ematen du.

C) Arabiar txikia: Jesus Gurutzatuaren Maria beata (Baourdy).

Karmeldar gazte hau Belengo eta Nazareteko fundazioen animatzaile bezala aipatu dugu. Haifa eta Nazaret artean koka-



*Alfovino Missori irudigilearen obra: Maria Jesus Gurutzatuarena
Bernini-ren aintzan, 1931-XI-13an.*

tzen den *Abellin* Galileako herri txikiko alaba zen. Gurasoak hiltzean Alejandriara aldatu zen osabarekin (1853). Hamahiru urte zituela uko egin zion osabak prestatu zion ezkontzari; ordutik aurrera egoera ezerosoa bizi zuen osabaren etxean. Zenbait eragozpeni aurre egin ondoren, Marseillara etorri zen bizitzera. Hiri honetan, 20 urte zituela, jadanik estigmak zituen; ez zuten onartu Agerkundearen Jose Santuaren Mirabeen komunitatean.

1867an sartu zen Pau-ko moja karmeldarren etxean. 1870an Mangalore-ko (India) *Karmel* fundaziora bidali zuten. Erlijio-profesa 1871ean egin zuen. Ezohiko hainbat fenomeno, hala nola estigmak, transberberazioak, eta antzerakoak izan zituen. Eta, aipatu dugun bezala, 1875ean Belengo *Karmel* fundazioan ageri da; eta beraren heriotza (1878-VIII-25) baino zertxobait lehenago, Nazaretoko *Karmel* fundazioa sustatzen. 1981ean izendatu zuen beata Juan Paulo IIak³.

Julen Urkiza / Patxi Uribarren

³ BIOGRAFIA:

Elias FRIEDMAN, *El Monte Carmelo y los primeros Carmelitas*, Burgos, (Argitaletxea: *Monte Carmelo*) 1985; 218 or. (itzultzailea: Antonio Fortes).

Il Carmelo in Terra Santa, dalle origini ai giorni nostri, Arenzano, 1994, 224 or. (lankidetzan eginiko lana; zuzendaria: Silvano Giordano; argazkilaroa: Girolamo Salvatico).

BIZITZAKO ERREGELAREN MENDEURRENA OC-OCD NAGUSI JENERALEN GUTUNA

“ Belauniko jartzen naiz Aitaren aurrean... eta hau eskatzen diot: bere aintzaren aberastasunari dagokionez, sendo zaitzatela Espirituaren indarrez, barrutik bazi zaitezten “ (Ef. 3,14.16)

1. Sarrera

Orain dela 10 urte, Karmeldar Familiako kide guztiei idatzitako gutun baten bidez gogorarazi genuen Inozentzio IV.a Aita Santuak Karmeldarren Erregela behin betiko onartu zueneko 750. urtea.

Berriro ere geure Familiako adar guztietara jotzen dugu idazki honen bidez, Albertok, Jerusalemgo Elizako Patriarkak (1205-1214), *Karmel Mendian (Eliase) Iturri ondoan* bizi ziren eremutarrei eman zien *Bizi Araudiaren Zortzigarren Menduerrera* gogorazteko. 2007a (1205-1214 artean), *Bizi Araudia*, geroa zenbait egokitze egin ondoren gaur bizi dugun Erregela bihurtuko zena, *Ematearen* urte sinbolikotzat hautatu dugu. Hasierako talde txiki honek bizia eman dio Elizarentzat zintzotasun eta emankortasunezko historia askotariko aberatsari.



Wadi 'ain es-siab. Hegoaldeko ikuspegi orokorra. Leben planoan, eliza.

2. Jatorriaren oroipen bizia

Karmeldar guztiok esan genezake *gure sustraiak mendi santuan daudela*¹. Eta Santa Teresa Jesusenaren hitzak entzuten ditugu: *[jar bitzate beti begiak gu gatozen jatorrian, Profeta santu haiengandik baikatoz. Bai santu ugari ditugula zerruan, abitu hau jantzi zutenak! Jainkoaren laguntzaz, baiiek bezalakoak izateko harrotasun santua izan dezagula]*².

Anaia eta ahizpa maiteak, mendi santuaren oinetan bildu nahi zaituztegu era sinbolikoan, zortzi mende hauetan espirituaren joritasuna iturri berberetan edan duten lekukotasun

¹ Jean de Cheminot (1337), Speculum Fratrum Ordinis B. Mariae de Monte Carmelo.

² Fundaciones 29,33.

ugarien ondoan, zerbitzu zintzoaren eta Jesu Kristori erabat obeditzearen hitzarmena berrizta dezagun. Izan ere, gure Erregela beti da bizi berriaren iturria.

3. Jesu Kristorentzat opari izanez

Bizi Araudia erromesen lehen taldearen, Karmel Mendian Eliasen Iturri ondoan eremutar bihurtu ziren lehen taldearen, esperientzia espiritualaren adierazpena da; biziki azpimarrazten du Jesu Kristoren presentzia eta harekin aurkitze guztizkoa, haren mendean jarriz barru-barruko eta ezin hautsizko maitasunez. Karmelen izaera karismatikoa eguneroko bizi-kontaktatu honetatik sortzen da, era beti berrituan.

Honek hasieratik proposatzen du Jesu Kristorentzat opari izanez bizitzea, eta ondoren datorren guztia baieztapen horren azalpena baino besterik ez da: Kristo da Erregelaren muina eta baita Karmeldar bizitza ororena ere. Haren ahotsa entzunez, pozik eskaintzen diogu geure askatasun eta bizia Jaun eta Salbatzaile bakarrari, Hark oparo itzultzen baitigu (ik. Jn. 10,10). *Obsequium [oparia]* esaneko izanez entzutea da, eta *Jesu Kristorentzat opari izanez bizitzeak* ahoz eta batez ere eguneroko bizitzaz *Jesus Jauna dela* (ik. Erm 10,9-18) aitortzea esan nahi du, Hark bakarrik egiten gaituela libre eta bere Izaeraz betetzen gaituela ongi gogoan izanik. Izan ere, Jesusen misterioak agertzen die garai guztietako gizonari eta emakumeari berauen existentziaren esanahi sakona.

Kristoren deiari jarraitzea Berarengan eraldatzeko bide bihurtzen da ezinbestean, kreazio berri batean bezala, eta horrek sorkariak Jainkoak ikusten eta maitatzen dituen bezala ikusi eta maitatzera darama. Helburu hauek jarraitzean ezbairik gabe kemen eta iraupen handia behar da, bidea batzuetan bihurgunez betea eta latza gerta daitekeelako. Hala ere, hainbeste Karmeldarren lekukotasunaz, Elias Profetaren etsenplu onaz, eremuan ere zintzo iraun baitzuen, aintzaren mendirantz jotzeko gogoia eta bultzada sumatzen ditugu. Maria, fedean gu-

re Ama eta Arreba (Ahizpa), Karmeldarroi barrutik beti lagun egin diguna, uneoro gurekin dago eta zaindu egiten gaitu Kristo Jaunarengana daraman ibilbide honetan.

4. Erdigunera...

Erregelak gelatxoan erdian otoiztegia ezartzen du (14. zenb.): goizero dei egiten zaio bakoitzari Eukaristiaren ospakizunerako *biltzera*. Karmeldarrek beren gelak utzi eta eremuaren erdian ikusten dituzte beren buruak, bide espiritualaren keinu sinbolikoan bezala. Elkarteko kideak direnez, geletako bakardadetik irteten dira elkarteko ekintzaren erdian elkarrekin biltzeko. Gelen erdigunean dagoen otoiztegiak Kristo bakarrik dela pertsonaren eta elkarteren erdigunea esan nahi du. Honek lehen kristau elkartea gogorarazten digu (Eg 2,42;4,32), bizitza sagaratuaren oroipen eta profeziatzat hartua izan dena.

Eguneroko bilera hau gelako bakardadetik irteteko eta norbera bakarrik nahiko dela pentsatetik irteteko deia da, Jainkoa elkarteren bihotzean aurkitu ahal izateko.

Gelako bakarreko eta kontenplaziozko isiltasunean Jainkoaren bila emandako lekune eta denborak ez dituzte urundu behar Karmeldarrak gainerako pertsonekin harremanak izate-tik. Bi errealitate hauek, benetakoak badira, elkarren osagarri izan behar dute. Izatez, edozein esperientzia erlijioso bestee-kin dugun portaeraren neurrian izango da benetakoa.

Santa Teresa Jesusenaren *Barruko Gazteluaren* erdian ger-tatzen da Jainkoaren eta gizakiaren arteko elkartzeko estu-estua³. Barruko bidearen helburua, hainbat eragozpen eta tentaldi gaintitu ondoren, Kristo bizi den geure buruaren erdigunera iristea da. Honi dagokionez, Erregelak borrokaren irudi bibli-koa darabil, espirituzko armak: kastitatea, pentsamendu san-tuak, justizia, Jainko eta lagun hurkoaganako maitasuna, fedea,

³ Castillo Interior 1,3.



Elizaren fatxada, oraintsu berreraikitako sarrerako arkua duela.

salbatzaileaganako konfiantza, Jainkoaren hitza erabiliz. Erregelak eta Bibliak gogora ekartzen digute, espirituzko borroka hau gure bihotz barruan gertatzen dela. Otoitzaz, isiltasunaz, lanaz eta ebanjelioko buru-ukatzeaz ikasten dugu sendatu beharra duten gure bizitzako atalak zein diren eta Jaunarekin ba-keak egiten (18,19,20,21. zenb.).

5. Mezatarako bildu behar duzue egunero (14. zenb.)

Eremutarraren eguna eguneroko Eukaristiaren ospakizunaz, Jaunaren Pazkoaren oroipenez, hasten da. Beste kasu batzuetan, ez da erraz aurkitzen elkartzearen eta Eukaristia ospatzearen agindua eremutarrentzat. Lehen Karmeldarrak, ordea, beren bizitzarako misterio horren garrantziaz jabetu ziren, eta horrela

izango da ondorengo zortzi mendeetan ere: Kristorekin aurkitzea eta bat egitea barruko bizitzarako une nagusia dira.

Adibide ugarien artean, Santa Teresa Jesusenaren adibidea aipa genezake; izan ere, hark ez zuen fundaziorik osatutzat ematen, harik eta lehen meza bertan ospatu eta Gure Jauna kaperako sagraioan ezarri arte.

Santa Maria Magdalena Pazzi-koaren estasirik gehienak jaunartze ondoren gertatu ziren, eta Tito Brandsma dohatsuak Dachau-ko kontzentrazio eremuan betaurrekoen zorrotxoan gordetzen zituen forma sagaratuetatik hartzen zuen barruko indarra.

Eukaristia da gure otoitzaren muina, gurutzean hiltzeraino bere burua eman zuen eta pizturik eta bizirik gurekin dagoenaren misterioa. Pertsona guztien jai eskatologikoa da. Guztien artean partekatzen dugun bakearen jainkozko dohaina da.

6. Gau eta egun gogoeta egin (10. zenb.)

Erregelak Jesu Kristo beronen Hitzean aurkitzera dei egiten digu. *Gelatxoan bakarrik bizitzen gara*, bihotzera hitz egiten Jaunari uzteko.

*Jaunaren legeaz gogoeta egitea eta otoitz erne*a *Lectio divina-*ren** bi une dira: gogoetak eta otoitzak betetzen dute egun osoa.

Bibliaren irakurketaren ondoren, ahoz ere egin daitekeenaren ondoren, hausnarketa (ruminatio) dator eta errepikatzea, hitzak ongi finka daitezen gogoan eta bihotzean eta ahoan (19 zenb.). Hala ere Espiritua da gauza espiritualetarako gogoa eta kontenplaziozko dohaina pizten jarraitzen duena, bertan bizitzera iristeraino: *Guk Hitza bizi dugu, Hitza guretik bizi dadin*. (10.19 zenb.)⁴ Gelatxoan irauteko deiak lehenik bakarda-

⁴ Ik. Jn 15,4,7;13,10; 1Jn 5,11-12; Gal. 2,20; Gal 4,15; Erm 6,11 etab.

de fisikoa adierazten badu ere, espirituzkoa esan nahi du batez ere, bakardadean Kristo bizi delako, Aitaren Hitza. Karmeldarraren bizitza *Kristogan bizitzea da*. (18. zenb.).

Bakarreko eta elkarteko otoitzak Jainkoaren ahotsa entzuteko eta haren aurpegia eta besteena aurkitzeko gai egiten gaitu. Gelako bakardadea, eta batez ere *arimaren barneko bakardadea*⁵ da Jainkoaren bihotzarekin eta haren ahotsarekin sintonizatzekeo gunea.

7. Jainkoaren Hitza bego ugari gure ahoan eta zuen bihotzetan (19. zenb.)

Bibliako hitza aipatzen da, eta horren barruan sakonkiago Jaunaren salbamen-asmoa, eta batez ere Kristoren misterioa, Aitak esan zuen Hitz bakarra, *barruko isiltasunean entzuna, musika isila, bakardade soinuduna*⁶. Presentzia egin den Hitza euskarri eta kemen bihurtzen da Jainkoagatik garrez dagoen Elias profetarentzat, harengan beheraldi eta etsipena gaindituz. Horrela ongi etorriko zaio herriari, Itunari leial izateko eta ahulen eta zapalduen zerbitzuan jarraitzeko.

San Joan Gurutzekok hau zehazten du: *Hitz bat esan zuen Aitak, bere Semea eta hitz hau betiko isiltasunean mintzatzen da eta arimako isiltasunean entzun behar da*⁷. *Guri ematean, bere Semea eman zigunez, bere Hitza dena, besterik ez du-eta, hitz bakar honetan dena batera esan zigun, eta ez du beste esatekorik*⁸.

Erregelak, Maria bezala, gure Lectio Divina-ren Ikono eta maistra ziur den Maria bezala, *Hitzaren entzule* nahi gaitu: *Mariak gertakari guztiok gogoan hartzen zituen, bere barruan*

⁵ S. Juan de la Cruz, Cántico 1,6.

⁶ Cántico, 14 e 15.

⁷ Dichos de Luz y Amor 99, en Obras Completas, Ed Espiritualidad, Madrid 1988.

⁸ 2 Subida 22,3.

hausnartuz (Lk 2,19). Hura Jesusen eta Jainkoaren asmoen zerbitzuan jarri zen oso-osorik, bere biziera adierazten duten hitzekin: *bona hemen Jaunaren mirabea* (Lk 1,38).

Hitz bakar honek gaur egun gure kontzientziaren sakonean eta fedearen ahalmenean guri mintzatzen jarraitzen du, guri mintzatzen jarraitzen du gertakarien sakonean eta gizadiaren premietan.

8. Isiltasunean eta itxaropenean dago zuen indarra (21. zenb.)

Gure Bizi Araudian *silentium* itxaropenarekin batera dago; hark *atsedena, gelditasuna, lasaitasuna* ere esan nahi du eta jarrera horiek Jainkoagan uste onez buru-uztean oinarritzen dira eta itxaropenarekin lotzen. Karmeldarren Erregelak bakardadea eskatzen du (5,6,10. zenb.), isiltasuna eta bakea gordetzea agintzen du (21. zenb.), adimena eta irudimena heztea “pentsamendu” santuen bidez, eta irudi eta sinbolo santuen bidez, gehi genezake (19. zenb.): hau guztiau pertsonari barruko sendotasuna emateko.

Gure garaian ondasun espiritual hauetarako arreta eta beharrene seinaleak sumatzen ditugu poz handiz, eta Karmelek, bere antzinako tradizioan eta testigantzan tinko, horiek hartu eta kristau-itxaropenaren seinalean emankor bihur ditzake.

Barruan daramagun karismari leialtasun kreatzailea izateko ausardia eskatzen da, Jaunaren Espirituak mundu zauritu eta gaixoan ere bere lana egiten jarraitzen duelako.

Itxaropena pertsona bakoitza ukitzen duen Espirituaren indarra da; are gehiago, historiako gertakari nagusiak ere ukitzen ditu, energiak eta proiektuak piztuz, eta Jainkoak gizadiak dituen asmoak betearaziz. Kristauak itxaropenerako bokazioa du beretzat eta munduarentzat, justizia lantzen du egian eta ez du utziko egundo ere ideologiek, propagandak eta hitz huts multzoak bere burua zapal dezan. Bere garaiko errealitatea



Elizako absidearen atzealdean kokatutako goiko iturria; garai batean komentuko kanpoko hornen barruan egon zen. Ikuspegi orokorra.

Jainkoaren begiz irakurtzen ahalegintzen da. Jainkoaren Hitza entzuteak pentsamenduak aldatzen ditu, gauzak ongi bereizten laguntzen du, eta norbere usteetan sendotzen du. Bizitzako ilunpean ere, heriotza ez dela historiaren azken Hitza esaten digu, Jainkoaren grazia baizik Berpiztuaren betetasunean.

9. Munduko bideetan (17. zenb.)

Jesu Kristorekiko harremanak sakonki markatzen du sagarautakoen eta fededun guztien espirituzko bizitza, eta hori dela eta, santutasunerako dei unibertsala azpimarratzen da. Gure karmeldar esperientziak, Jainkoarekin barru-barruko harremana ezaugarritzat duenak, alde batetik Elizaren aldeko grina bizia adierazten du eta bestetik pertsonaren aldeko ardura erne eta zintzoa. Gure Santuek norabide bikoitz hau utzi digute,

bihotza zabaltzen duen eta Hitzaren aldarrikapena eraginkor egiten duen esperientzia mistikoaren ondorio gisa.

Teresa Jesusena prest dago arima bakar bategatik mila aldiz bizia emateko eta gogoa berotzen die ahizpei otoitz egiteko eta *arimen ona lortzeko zaletu daitezten* saiatzan da. Haren bizitza Karmelen Elizarentzat eta gizadiarentzat da⁹.

Teresa Jesus Haurrarenarentzat, *maitasunaren Zientzian* Doktorea eta misioen zaindaria denarentzat, Eliza Amaren bihotzean maitasuna izateko bokazioa beraren santutasunaren aurkikuntzarik txundigarri eta bereizgarrienetakoa da.

Karmeldar otoitza apostolikoa da. Hura, Jainkoarekiko harremanetan hartutako aberastasunak besteei, batez ere txikiei eta behartsuei, emateko errukia eta pizgarria da. Karmeldar espiritualitateko dohainak partekatzeak Jainkoaren seme-alaben mundua eraikitzen laguntzen du. Kontenplazioan ageri den Jainkoa pobreaken oihua entzun eta honen bermatzaile dena da (Es 2,23;3,7; Sal 113,7-8). Gaur egun munduak itxaropen eta eraldatze beharra du, eta guk lagun diezaiokegu hori eraikitzen Espirituaren indarrak.

Aita Santuak gogora ekartzen digu, maita nezakeela *Jainko-arengan eta Jainkoarekin gogoko ez dudan edota ezagutzen ez dudan pertsona. Hau Jainkoarekin barru-barrutik elkartzetik, sentimendua ere barru dela, borondateen batasun bihurtzen den elkartzetik gauzatu daiteke soilik. Orduan beste pertsona honi, neure begiekin eta sentimenduekin ez, baina Jesu Kristoren ikuspegitik begiratzen ikasten dut*¹⁰.

Horrela, Kristoren pasioa ezinbestean gizakiaren aldeko pasio ere bihurtzen da, Hura galdua zen gizadi osoa salbatzera etorri baita, kultura, arraza nahiz hizkuntza dela eta bereizketarik egin gabe. Jesusen espirituak, kontenplaziozko isiltasunean jasoak, barruko askatasuna ematen du eta, itxaropen beharre-

⁹ Camino 1,5; 3,4, Fundaciones 1,6 y 7.

¹⁰ Benedikto XVI, Deus caritas est, 18.



Karmel tontorra eta Haifa-ko golkoa Joan Bautista San Alejorenarrak marrazkian (Erroma, Karmeldar Oinutsen artxiboa orokorra)

an dauden anai-arreben bila joateko, geure segurtasunak alde batera uztera eragiten digu.

10. Zabalagotu zeure etxolaren esparrua (Is 54,2). Anaitasuna (4,5,7,9,12. zenb.)

Bizi Araudia “B.ri eta gainerako eremutarrei” (1 zenb.) zuzendua da. Jesu Kristo da haiek elkarrekin egotearen arrazoia eta baita bere bizi-proiektuaren gidaritzat onartzen duten anaie-tako bati nahita obeditzearen arrazoia ere. Hau denboran aurretantz begira dago, baina era berean iraganean inspiratzen da: Eliz Gurasoei (*sancti Patres*) (1 zenb.), bertako Patriarkaren bitartez Jerusalemgo Elizari, eta Jerusalemgo Elizaren bitartez eliza guztiei eta *gugana datozen guztiei* begira dago (9 zenb.), Jauna berriro etorri arte. Ez goaz bakarrik bidean, baizik eta geure anai-arrebekin batera Jainko biziaren aurpegia bilatzen digu. Hauek dira Karmel eta Eliza argitzen dituzten santu handiak, eta gaur egun bizitzan gurekin batera partaide diren guztiak, elkartasun horretan karismaren indarra eta poza aurkituz.

11. Profetarekin batera zaindu bitza haien bideak (21. zenb.)

Iraganeko hainbat eta hainbat lekukotasunekin, guretzat inspirazio-iturri direnekin batera, Espirituak oraintsuago profeta-martiri handiak sorrarazi ditu gizadiaren gertakari larrien ingurumarian: Tito Brandsma Dohatsua, askatasun eta egiaren komunikazioan eta arrazakeriaren aurka egindako borrokan; Edith Stein Santua, emakumearen duintasunean, egiaren bila burutsu jokatzean, hebraismoaren eta kristautasunaren erlazio-mugan; beste karmeldar martiri, misiolari eta fedearen eta Jainkoaren maitasunaren aitorle batzuk. Karmelen kontenplazio-jarrerak esku hartzea, sarritan bizitzako gorabehera garratzetan zeudenen zorian esku hartzea, ekarri du. Karmelen isiltasun teologikoak bere egiten ditu mundu berri zuzenagoa eraikitzearen aldi guztietako gizon eta emakumeek hartzen dituzten *poz eta itxaropenak, tristura eta larritasunak* (GS 1).



Emmanuel Rieda irudigileak 1932-1933. urtean zedroan landutako Andre Mariaren irudia. Eskulturaren aurpegia eta eskuak Juan Bautista Garaventa irudigilearenak dira.

Amaiera

Karmel liluragarria da Mariaren edertasun eta distiragatik; *bura da Erregela idatzia dagoen liburua, harengan idatzia baitago Hitz*¹¹. Erregela Jesu Kristo da, Hitz, Aitare Hitz ba-

¹¹ Constituciones de las Carmelitas del monasterio de S. María Magdalena, Florencia 1981, n. 22.

karra: Mariarengan haren irudirik osoena aurkitzen dugu. Kristoren ikaslea da, eta Mariak jainkozko Hitza gugan haragi egiten laguntzen du. Hau zen Elisabet Hirutasunarenak biziki nahi zuena ere, *Hitzaren Gizakundea bezala* bere ariman¹².

Gure Erregela Mariagan eta haren bizitzan irakurri behar zelako ustea karmeldarren lehen idazkietatik dator. A. Migel San Agustinena beneragarriak hau idazten du: *gure Erregelak (bau da, gure bizierak) Mariarekin du antz-irudia, Maria "sinboloaren" beste alde da eta horrek elkar ezagutzea dakar*¹³.

Teresa Lisieuxkoak, Ebanjelioaren muina berraurkitu duenak, era berean Maria erregina baino gehiago ama dela aurkitu du, haren bizitza gurea bezalako dela eta horregatik barrutik arrastatzen gaituela Jesusengana fedean eta zerbitzuan¹⁴.

Karmelego historiaren 800 urte hauei begiratu, ager diezaiozun geure esker ona Jainkoari, beraren graziak Elizaren bizitzarako gertarazi duen guztiagatik.

Gorets dezagun Jauna geure Familiako santu guztiengatik, ezagunak izan nahiz ez.

Gure guraso santuak gogoan izanik, otoitz egin dezagun, maitasunez eta Jaunaganako garrez beteak izan gaitezen eta gure Erregelak Jesu Kristorentzat opari izanez bizi nahi dutenak argitzen jarrai dezala, karmeldar tradizio bizian.

Zortzigarren mende honen oroipena guretzat graziaren zintotasun pozgarri baterako deia da Elizaren eta gizadiaren gaurko une honetan.

(Erregelari erreferentzia egiten dioten zenbakiak ez datoz bat guk aldizkarian argitaratu dugun Erregelaren zenbakiekin).

¹² Elevación a la Santísima Trinidad, 21 de noviembre de 1904

¹³ De Regula Carmelitarum, en Introductio ad vitam internam et fruitiva praxis vitae mysticae, Roma 1926, 183.

¹⁴ Últimas Conversaciones, 20-21 agosto

EZAGUTZAREN TEORIA BAT

1.- Edozein objektu material inteligible egiten zait berorren definizio universalak dudanean. Baina jada hasiera hasieratik gure ikerketa arazoez korapilatzen hasten da. Zeren definizio bat universalak izateko zerbait geldia adierazi behar baitu, eta mundu material honetako oro aldakorra da. Eta hori hola baldin bada, orduan ez dago modurik mundu material hau inteligible egin dakigun.

2.- Materialismo hutsean bildu ziren Platonen Akademiakoak, eta ondorio horretara heldu ziren, eta zioten ezen mundu hau inintelligiblea dela eta eszeptikoak ziren, zeren ikertu egiten baitzuten metodo sokratikoan, hau da, arrazonomendu inductiboaz bilatzen zituzten gauzen definizio universalak, eta hori ezinezko egiten zitzaien.

3.- Platonek, arazo korapilatsu horri erantzun bat aurkitu zion. Gauza baten definizio universalak geldia izan behar baldin bada orduan definizio hori ezin gerta daiteke mundu honetan, eta gauzen forma inmutableen mundua “deskubritu” zuen, eta hor jada inteligible egiten zitzaion edozein gauza. Eta hor jada bazen posible zientzia egitea. Baina mundu materiala non geratzen zen haren hizpide logikoan?. Eta guri mundu materiala da interesatzen zaiguna, sortzen digun arazo larri horrekin ere, baina mundu materiala ezagutzea dugu helburu.

4.- Aristotelesek platonismoa ez zuen gainditu, ordenatu egin zuen. Egia da badagoela koadro bat non Platon ageri den zerura begira eta aldamenean du Aristoteles hatz batekin mundu hau indikatzen, eta horrekin pintoreak signifikatu nahi zuen Aristotelesen filosofia mundu honetako gauzeekin gehiago lotua. Baina Aristotelesendako definizio universalak ez da mundu honetan lor daitekeen zerbait, eta bai objektu materialen formari dagokiona da. Eta forma hori ez da materiala inmutablea delako, eta horregatik definizio universalak inteligibletasuna ematen duen formaren deskripzioa da. Baina funtsean hori berori da Platonen ezagutzaren teoria. Halaxe hasten baikara ezagutzen mundu material ininteligible hau, forma inmutableen bitartez.

5.- Baina inmutable dena ezin izan daiteke mundu honetako, kosmos honetako, eta hor jada ageri zaigu aristotelismoaren joera metafisikoa, teologia monoteistan duena burua. Eta horregatik aristotelismoan da hain erraza Jainkoaren existentziaren demostrazioak egitea, Tomas Akinokoak egin zituen moduan.

6.- Baina filosofiaren historiak materialismo hutserako bidea hartu du, eta gaurko egunean gutxik ikasten dute kosmos inmutablerik, soilik ikasten da kosmos hau, kosmos material hau, zeina baita mutablea, igarotze etengabea. Baina galdera berbera dugu, nola den posible objektu material diferenteen definizio universalak, zeren soilik horrela baita posible zientzia hastea. Eta ez du balio jada eszeptiko klasiko haien argumentua, absurdoa baita erratea zientzia ez dela posible.

7.- Korapiloa baina ez da hain gaitza askatzea. Azken batean kosmos material hau formala baita. Ageri diren forma materialak mutableak dira, baina badute beste aldetik halako aire bat erakusten diguna inteligible daitezkeela. Eta hori da badaithekeelako objektu materialen definizio universalak egitea, euren formetan aurkitzen dugu material nahikoa hori posible izateko. Nahiz eta ezinezkoa den, bistan dago, zientzia perfektu-

rik burutu. Eta hori da hola definizio universal horiek, balekoak diren arren gure bide zientifikoak hasteko eta garatzeko, ez dutelako forma material horien materiatasuna beren baitan hartzen. Nonbait materiatasuna eskapatu egiten zaigu intelektotik, eta misterio egiten zaigu. Eta materialismo hutsean hala da. Eta gehiago oraindik, ezinezkoa da materialismo huts horretatik inolako demostraziorik egin beste kosmos batez.

8.- Objektu materialen definizio universaletan sakonduz zientzia materialistaren oinarriak sendotu egiten ditugu, eta sakontze hori beti da hobegarria, hau da, beti da inperfektua. Baina zientzia materialista hori beti izango da, nolabait esateko, formala. Eta formak evoluzionagarriak badira, mutable direlako, materiazko formak direlako, orduan definizio universalak egiteko materia sekula ez da agortzen, eta beti dago zientzia materialista bat, bere izaeran formala dena, bere formaltasun hori materiazkoa delako, beti dena perfektionagarria, hau da, inperfektua beti ere. Horrekin demostratzerik badago berriro ere nola ezinezkoa den inondik inora, zientziak aurrera egin dezakeen arren beti, kosmos materiala ezagutzea bere funtsean. Beste modu batean esateko, badaude materiaren definizioak fisikariek egiten dituztenak, definizio operatiboak, baina ez dugu materiaren definizio universalik. Eta materia misterio egiten zaigu. Nola ezagutu dezakegu igarotzea bezala ezagutzen dugun materiaren esentzia?. Ez dago modurik kosmos honetan. Eta horregatik, ezagutza universal horren faltan, ez dago kosmos materialean utopiarako modurik inolaz ere inoiz, edozein dela gure evoluzio intelektualaren uea.

9.- Baina kosmos material honen historian badira deskribitzen fenomeno batzuk Juan evangelariak signo bezala ezagutzen dituenak. Eta Tarsoko Paulok badu behin esaten nola judioek seinaleak nahi zituztela sinesteko, signoak, baina greziarrek ezagutza nahi zuten. Nik filosofian dihardut eta nik ere ezagutza nahi dut. Eta nire ikerketetan signoen definizio batera iritsi naiz, dira judizio sintetikoak a priori kosmos materialean

eginak. Baina horretarako behar da minimoki kosmos material honen ezagutza universalak. Halako signoak egiten dituenak badaki materia zer den, badu materiaren definizio universalak, eta hortik gobernatzen ahal du nahi erara. Eta testigantzei kreditua emanez gero badugu pertsonaia historiko bat, Jesus, hori bazekiena. Beraz, ezinezkoa denez halako ezagutzarik kosmos material honetan, ezin izan daiteke Jesus kosmos honetakoa, eta bai beste kosmos batekoa non utopiarik ederrenak posible diren, zeren materia baita gobernarria halako ezagutzatik. Eta utopiarik handiena Paradisua da, Jainkoaren Erresuma, zeina ezin daitekeen kosmos honetan.

10.- Irakurle atentua ikasten ahal du nola nire ezagutzaren teoria ez dela, Platonenaren kontrara, ezta koma bat ere alden du materialismo ilustratu batetik, nolabait esateko, baina historiako fenomeno batzuek ikertuz, signoak, iristen da beste kosmos bat goragokoa begitantzera, non kosmos materialaren definizio universalak baden ezaguna, eta hortik ondorioztatzen ahal da hor dela egiazki utopia gauzatzen, hau da, denok Paradisua bezala ezagutzen duguna. Jainkoaren Erresuma.

11.- Agian batek galdetzen du zergatik dihardudan nik halako ezagutzaren teoriak egiten, halako demostrazioetan sartzen, dena ateoz beteta dagoen gizarte honetan. Eta halakoari nik erantzuten ahal diot nire biografiatik ateratako fede esperientzia batekin. Oso gaizki nengoen batean konfesatzera joatea okurritu zitzaidan eta abadeak esan zidan ez zekiela mundu honetan nitaz zer izango zen, baina gero, Zeruan, tronu bat merezi nuela. Eta hura grabatuta geratu zitzaidan, zeren nik, halako egoeran, ez bainekien nitaz zer izango zen mundu honetan, eta kezka horrekin bat nentorren erabat, desesperantza handi batek hartua nengoen, eta mundu honetakoa interesatzen zitzaidan nire desesperantza handiagorako. Baina interes hori aldatzen joan da filosofiarako joera dudan honen baitan, eta gehiago dedikatu naiz une hartan bizi nuen fede esperientzia harek bigarren partean zioenaz pentsatzen. Eta filosofiako

karreran ere ibilia naizenez eta nire filosofia ere garatu, dedi-
katu egiten naiz fede harek zioztana arrazoitzen, hau da, de-
mostratzen nire ahalen barruan egiazko zerbaiten fedea dela
nirea, eta mundu honetakoa jada ez da hain inportantea nire-
tzat. Deskubritu dut dedikazio bat, nire fedea arrazoitzea. Eta
ez bakarrik nire artean, komunikatu ere nahi dut. Zeren kris-
tauok misioan bidaliak baikara mundu honetan. Eta ondo har-
tua ez banaiz, ignoratua banaiz, nik ere ignoratu egiten dut ig-
noratzen nauena (azken hau amets batek erakutsi zidan). Bai-
na denen buru amua botatzea tokatzen zaigu kristauoi, eta nik
modu honetan dihardut.

Roman Garmendia

KONTU KONTARI**DEABRUA TEILATU GAINEAN**

XIX. mendearen bukaera aldean Jaizkibel mendian, Guadalupeko gotorlekutik hurbil zegoen baserri batean Ameriketatik etorritako osaba indianoa hartzen zuten. Familia osoa baserriaren atarian zegoen, osaba etorri berriari harrera egiten, etxeokonde alarguna eta lau seme-alabak.

- Egun on osaba Pello, berori ezagutzeko irrikan ginen. Amak askotan kontatu digu zein gazte eta ausarta zen Ameriketara diru bila joan zenean. —ilobetako batek.
- Eta hi Josetxo izango haiz, ezta? Familiaren itxura harra-patzen diat.
- Bai Pello, Josetxo duk, gure semerik zaharrena. —aldamenean zegoen Ixabel etxeokondeak.
- Ixabel, arreba maitea, beti bezala hago! Denbora ez al dun pasatzen hiretzat ala?
- Ixo, ixo aluita, beti bezain zurikero segitzen duk. —Ixabelek, pozaren pozez.
- Eta hauek —Josetxoren ondoan zeuden bi neskei eta mutil gazteari begiratuz— Maialen, Iñaxi eta Antton izango dira, ezta? —osabak.
- Zein izango dira ba, Guadalupeko apaizaren seme-alabak, ala? —Ixabelek bere nebaren hitzak moztuz.

Harrera egin ondoren etxeko sukaldera sartu ziren. Ixabelek bazkari ederra zeukan prest mahai gainean. Bazkaltze bitartean kontuak eta gertaerak izan ziren nagusi. Osabak Ameriketara ikusitakoak eta bizitutakoak kontatzen zizkien hitz handiz eta keinu handiagoz. Etxekoandreak eta lau seme-alabek aho zabalik entzuten zioten. Denak pozik zeuden, edo behintzat, horrela ziruditen, baina Pellok, hitz eta irribarreen artean, etxe hartan zerbait gertatzen zela sumatu zuen. Alabaina, goiz samar iruditu zitzaion horretaz galdetzeko, eta gerorako laga zuen.

Gau hartan bere txikitako gelan egin zuen lo. Arreba Ixabelek txukun-txukuna zuen dena. Bazirudien urteak ez zirela pasa izan gela hartan, dena Ameriketara joan zenean utzi zuen bezala baitzegoen. Horman eskegita zegoen ispiluan bere burua ikusi zuen, eta orduan konturatu zen joandako urteez. Hemezortzi urterekin alde egin zuen etxe horretatik, eta orain berrogeita lau urte beranduago, berriro itzulia zen jaiotetxera. Bai, hirurogeita bi urte zituen eta hori nabarmen ikusten zen ispiluan. Urte gehiago zuen bizkar gainean, baita, Jaungoikoari esker, sosa gehiago ere poltsikoan. Ameriketara lan handia egin zuen, baina horri eskerrak poltsikoa ederki bete zeukan orain. Urrutiko lurralde haietan ez zuen inoiz astirik izan nesken kontuetan pentsatzeko, eta orain beranduegi zen familia bat egiteko. Hori bai, arreba alarguna eta bere familia laguntzeko prest zegoen. Huraxe izango zen hortik aurrera, berak egiten jakin ez zuen familia. Gogoetari emana zegoela, soinu handi bat sumatu zuen bere gainean. Bazirudien norbait ari zela teilatu gainean teilekin jostatzen edo. Hura buila. Zarata bukatzen ez zenez gelatik atera zen kriseilua eskuan zeramaila. Korridorean Josetxo ilobarekin egin zuen topo.

- Baina, Josetxo, zer gertatzen da teilatuan?
- Deabrua da osaba, askotan etortzen zaigu gau aldean, eta teilatuan aritzen da jauzika eta garrasika.
- Baina zer diok Josetxo? Zer deabru eta zer deabru-ondo?

Momentu horretan Ixabel bere gelatik atera zen izu aurpegi-az.

- Ai Pello, Pello, lehen ez diat deus kontatu hire etorrera ez iluntzeko, baina duela hilabete batetik hona deabrua etortzen hasi zaigu eta gau aldean esnatzen.

Teilatuan kolpeak, jauziak eta garrasi ozenak entzuten ziren. Beldurra zen familia haren nagusi. Pello bera kikildu zen zenbait momentutan. Baina gero, kriseilua eskuan zuela kanpo aldera atera zen teilatu gainean zebilena ikusi nahian edo. Josetxo atzetik atera zen. Ilargiaren ilun-argitan gizaki beldurgarri bat ikusi zuten, okertu samarra zebilena. Begira ari zitzaizkiola ohartzean, oihuka hasi zitzairen eta halako batean teila bat jaurti zien indar handiz. Gero jauzi azkarrak eginez beraiengana hurbildu zen. Hori ikustean osaba-ilobek ihesari ekin zioten eta etxean sartuta atea itxi zuten tranka jarriz. Deabrua berriz, atean joka hasi zitzairen atea astinduz eta mugituz. Barruan, denak zeuden esnatuta ordurako, esnatuta, eta ate ondoan elkarren ondoan, besarkaturik, isilik eta kaka-kaka eginda. Azkenean, argiaren lehen printzekin batera, deabruak alde egin zuen.

- Hau gaua! Oso gutxitan pasa dut bart pasa dudan beldurra! —osaba Pellok.
- Horrela da osaba, horrela da. Askotan etortzen zaigu eta arrosario santua errezatzen aritzen gara denok goizaldea esnatu arte! Akiturik gaude, akiturik eta beldurturik.
- Horrela ez dago bizitzerik Pello! Egunak joan eta egunak etorri eta deabru gaizto horrek hor segitzen du dantzan gure teilatu gainean —Ixabelek.
- Baiki, horrela ezin da bizi. Zerbait egin beharko dugu —osabak— eta Josetxo eta Anttoni begira— badakit, gaur gauean zelatan egongo gara kanpo aldean, zuhaitzen artean, eta deabrua etxera hurbiltzen denean zaku batean sartu eta makilazoz akabatuko dugu.

Esan eta egin. Iluntzean kanpo aldeko zuhaitzen artean ezkutatu ziren hiru gizonak eta zelatan izan ziren deabruaren zain. Halako batean, etxera zihoan bidetik barrena deabruaren irudi konkortua hurbiltzen ikusi zuten. Beso luze-luzeak zituen eta ibiltzean arrastaka zeramazkien. Ez zen oso garaia, baina bai sendo eta indartsua. Etxera hurbiltzean, Pello atera zen eta zakua burutik behera sartu zion. Deabruak garrasi beldurgarrik jaurtitzen zituen, eta indarka ari zen zakutik libratu nahian. Pellok indar handiz heltzen zuen aska ez zedin.

– Orain, orain! Jo ezazue, jo ezazue! —agindu zien garrasika bere bi ilobei.

Bi gazteak makila dantzatzen hasi ziren indar oroz. Deabrua ez zen isiltzen eta eroaren gisa ari zen garrasika eta indarka. Bi gazteek indar handiz hebaindu zuten, eta azkenean deabrua hilik gelditu zen.

– Goazen mutilak, zulo bat egin dezagun eta ehortzi dezagun deabru gaizto hau! —osabak.

– Ez, Pello ez! —etxetik atera berria zen Ixabelek— Ez dezazuen ehortzi, deabrua gauza baita lurretik ateratzeko eta berriro pizteko. Erre egin ezazue!

– Arrazoia duzu Ixabel, erre egingo dugu! —osaba Pellok.

Eta esan bezala, egin zuten. Sasiak eta egurrak bildu eta berehalaxe sua egin zuten. Bertara bota zuten deabrua gordetzen zuen zakua. Suak kiskali zuen betiko.

Familia poz-pozik zegoen, txoriak baino alaiago. Akabo deabru gaiztoa! Hura bakea! Egunez lan egiten zuten eta gauez lo, azkeneko garaietan egin ezin izan zutena. Hura lasaitasuna! Hura bizimodua!

Handik lauzpabost egunetara Guadalupeko gotorlekuko soldaduak baserrira hurbildu ziren.

– Horiek zer, orain ere, oiloak lapurtzera al datoz? —Esan zion Ixabelek bere nebari okerrena pentsatuz.

- Egun on? Ikusi al duzue egun hauetan gure tximua? —soldaduek.
- Tximua, zer da hori? —Ixabelek, harrituta eta esaten zientena ezin ulertuz.
- Bai, gure tximua. Lagun batzuek Afrikatik ekarri digute eta maskota gisa izan dugu orain arte. Gauero paseatzera atera egiten zen eta gero egun argitan bueltatu, baina badira lauzpabost egun ez dela itzuli. Ikusi al duzue?

Oharra: Istorio hau Jesus Mari Mendizabal “Bixargorri” lagunari entzundako kontakizunean oinarritzen da.

Joseba Aurkenerena

OLERKIAK

BELLOKETIK...

Belloketik etorri beneditarrek igaz ehun urte Gipuzkoan, Lazkaoko beneditarren monastegia sortu zuten; handik zenbait urtera, Lazkaokoek Estibalitzekoa, Arabako lurretan. Mendebetetze hori ospatu nahiz, eta esker onez, Hegoaldeko beneditarrok Iparraldeko monastegi amari Aizkorbe eskulturgileak eraiki gurutze-eskultura baten oparia egin zioten, eta hori bedeinkatzeko unean, Gurutze Sainduaren Egunean, irakurtzeko, olerki bat eskatu JosAnton Artzeri. Honako hau da:

oi, Maitasun,
Zurekin, zernahi;
Zu gabe, deus ez !

Zatozkit, Maitasun,
Zurekin, zernahi,
bai eta ifernua bada ere !
Zu gabe, deus ez;
ez niri ezer, othoi !,
ez eta zerua balitz ere...
ifernu bailitzaidake
Zu gabe.
Aldiz, ifernua zeru,
Zurekin !

Zatozkigu, Maitasun,
Zu gabe eguna gau dugu eta,
gau itsu;
Zurekin, berriz, gau beltza
egun eguzkitsu !
Bizia, herio guri, Zu gabe;
herioa bera, bizi,
gaua, egun,
ifernua, zeru, oi, Maitasun !,
Zu gu baitan zaitugunean,
gu Zu baitan gaituzunean !!

JosAnton Artze

MILIA LASTUR ON THE ROAD

I.

Bihotzaren ihiztoka karminetara
 Eroaten duen autobide hutsa
 Gustoko duela aitortu du:
 Milia Lastur on the road.
 Musu bat pausatuko du
 Bihotzaren ihiztoka karminak
 Eztitzen dizkion emaztearen
 Ezpainenetan.
 Milia Lastur on the road:
 Peage toll,
 Muga non dago?
 Autobidea desertua da:
 Negar egin lezake,
 Ortzaitzean
 Itsasoa urdintzen dakusan
 Aldi oroz,
 Zorion soilez negar.
 Oroitzen da,
 Milia Lastur on the road,
 Herio zuria desiratzen zuen
 Mende garratzak
 Egunez egun
 Pairatu zituela
 Bihotza ihiztoka karmina
 Bihurtzeraino,
 Baina orain
 Milia Lastur on the road
 Autobidean, zorion soilez
 Negarrez ari da.

II.

Hilotzen karrasiak josirik ahoan
Nola aurkituko dun hire sokorria?
Maiteko haut Milia, ez hadila joan,
Hator, edan dezagun ardao gorria.

Baratz aberatsetan ebatsi sagarrak
Gordeko ditinagu bide bazterretan:
Ahantz otoi Milia sarraski zaharrak
Eta suaren kantik bizihats erretan.

Belar bustiek egin maitasun ohantzan
Etzanen gaitun gero, bi-biak bihotza,
Gauero zazpi itzal ikusteko dantzan.

Non dago harria? Non dago lur hotza?
Eresi hark ziona jartzeko zalantzan,
Maiteko haut Milia, ez hadila lotsa.

III.

Nervionen azken gin-tonic bat
 Hurrupatu genuen,
 Eta Milia Lastur eder zitzaidan:
 Laztan gutizia neukan
 Baina begiak,
 Elkar balakari zebiltzan
 Bi neska gazteengana
 Luzatu nituen
 Eta Milia Lastur bezala,
 Emazteen arteko amodioa
 Eder zitzaidan.
 Gin-tonic hark burumuina
 Harrotzen zidala,
 Bizitzaren hondarra
 Milia Lastur maitatzen
 Higa nezakeelako
 Pentsamenduak
 Bihotz ihiztokaren karmina
 Zurbaildu
 Zidan.

IV.

Gaztelugatxe erakutsiko denat
Erran zidan Miliak,
Ala jadanik ikusia dun?
 Bai maitea, hurbildu natzaio
Behin edo berritan,
Baina oraino hogeita hamar aldiz
Atsegin berdinagaz
Miretsiko nukeela ihardetsi nion,
 Bista,
Gaztelugatxeko uhinen bizkar
Zimurra bezain zilar:
 Bai maitea, hurbildu natzaio
Behin edo berritan,
Eta ene bijotz emea
Laga dot bertan,
 Itsasoa zilarregia zen
 Apirila goiz batez
Eta geroztik
Gaztelugatxe daukat
Papoan punpari.
 Maite haut.

V.

Lagako hondartzan euria ari zuen emeki
 Ogono harria eta itsaso lainoa
 Grisez apainduz.
 Hil ondoko xedeetaz
 Mintzo ziren lagunak
 Irriz karkazailka,
 Eta nik, eta nik Milia Lastur
 Neukan muinean:
 Nahikoa erreak ginen guztiak,
 Bizitzako mila ekaitzetan errautsiak
 Oroz bat,
 Damuz, doluz eta dolore isilez
 Hantuak genbiltzan
 Irriz karkazailka
 Eta nik, eta nik Milia Lastur
 Neukan muinean.
 Lagako hondartzan euria gelditu zen
 Ogono harriaren eta itsaso lainoaren
 Gristasuna argituz.
 Lau legoatarik Izaro ilunak
 Gutariko bakoitza
 Irriz karkazailka plegatzen zen
 Uharte bakartia zela
 Oroit arazten zigun.
 Nahikoa erreak ginen guztiak
 Eta gure hautsak Bizkaiako Golkoan
 Barreia daitezela
 Oihukatu genuen,
 Eta nik, eta nik Milia Lastur
 Neukan muinean.

VI.

Milia Lasturren belarrira murmuratu nuen,
Galerna erraldoietan akitu itsasturi
Arrotza banintza bezala:

This land is my land

This land is your land

From Santagrazi to Izaro Island

From Baiona to the Bilbo sand

From Amikuze to the Tutera band

This land is made

For you and me...

Milia Lasturren ezpain ubelen ezkinan
Musua abandonatu nuen,

Gatzez ezti

This land is made

For you and me

Errepikatuz:

Gernikan ginen

Jadanik.

Gure herria zen.

Gure ardura zen.

Gure bakenahia zen.

Gure aniztasuna zen.

Engoitik.

This land is made

For you and me:

Itsasturi arrotza baldin banintza

Zer beste nezakeen ahozka?

This land is my land too

And U2

Meanwhile take my hand.

VII.

Matxitxakoko faroak noiztenka begitartea
 Urreztatzen zizunean
 Nahi zintudan bizitza osorako
 Ene saihetsean:
 Bizkaiako golkoan oinazeen, izuen
 Eta hutsen itotzea irudikatzen nuen
 Eta barnez alderat berritzea,
 Ni zure magalean,
 Matxitxakoko faroak noiztenka begitartea
 Urreztatuko lizukeenean.
 Laidatik,
 Bermeoko barra luzea ageri zen,
 Mundaka hiria aitzinean
 Eta erdian itsasoa,
 Urdaibai ahotik ihes.
 Gautzean,
 Txoriak aditzen ziren auhenez,
 Eusko Trenaren azantza ezpondan,
 Portura zetorren arrantza untziaren
 Izurde-orro elkorra,
 Bitartean gorputza,
 Esku-bitsen balakak
 Marea behearren orduan
 Are trebeago bihurtzen zirela,
 Plazerez bihurrikatzen zitzaizun:
 Urdaibai zinen,
 Bizkaia zinen,
 Izaro nintzen
 Matxitxakoko faroak noiztenka begitartea
 Urreztatzen zizunean.

VIII.

Nehork ez zidan erran
Zabalburu plaza desagertu zela.
Harritu nintzen,
 Ez nekien gehiago nondik
Nora jo
Hiriaren bihotzera
Heltzeko.
 Hamarkada bi lehenago
Zabalburu plazan
Zure aiduru egon nintzen,
Izotzak bazterrak setiatzen zituen
 Arratsalde hartan:
 Hogei urte zaharreko
Amodiozko istoriak
Gogora ekarri nituen
Zabalburu plazaren omenez
Eta orduan bizitzen nuen ilunbeari
 Balio bat emateko.
 Nehork ez zidan erran
Zabalburu plaza borobila
Ezabatua izan zela,
Baina segur aski jakin
 Beharko nuen
 Egunkariak irakurri
 Banitu.

IX.

Milia Lasturek
 Laster egin zuen Nervion
 Ibaiaren ertzeetarik.
 Goizean goizik jeikirik,
 Euriak aurpegia mailukatzen ziola,
 Guggenheimenen abegitik
 De La Sota kaiaraino
 Lehiatu zen:
 Udaletxeakoaren ondotik,
 Salveko zubiaren maldan
 Brontzezko gizon bakartiaren
 Zakur deslaia ferekatu zuen.
 Ama deiadarkatu eta gero,
 Deustuko zubiaren
 Makineria mirets zezakeen,
 Eta karola garabi gorria,
 Eta aingurak,
 Eta kateak, eta batela herbalak.
 Itsas airea zetorren,
 Lantzerra lagun,
 Izerdia eta ontziola ohien
 Oligo urrinarekin biltzera,
 Hiriaren burdinezko memoria
 Iratzar araziz.
 Nervion ibaiaren ertzetarik
 Laster egin zuen
 Milia Lasturek:
 ... nik zu zaitut maiteago...

X.

Itsasoraino joan behar dut marmaratu zuen

Milia Lasturek:

San Francisco auzoko karriketarik

Abiatu ginen

Beltzak, arabeak, hego amerikarrak

Eta buhameak taldean

Ausatzen ziren espaloietarik

Urratuz.

Trinkili-trankala, trabestia

Erdi mozkor eta arras akitu bat

Gurutzatu genuen:

Zigarretek hautsi zintzur-sokak

Daldararaziz

Piensa en mi abesten zuen.

Milia Lasturen begiak

Nereetan iltzatu ziren:

Gorlitzerako pausoaren

Eta melodiaren

Betikotasunaren jesarlea

Nintzen, alabaina.

Itsasora joan behar naiz marmaratu zuen

Milia Lasturek:

Itsasoak mututzen nau,

Aditza irensten dit

Gehituz,

Baina ni hirian geratzekoa nintzen,

Beldurrik ere eragiten ez zidan

Metropolis gataskatsuan,

Noizbehinka jasaten genuen

Bazterketa ezkelaren aztertzeko.

XI.

Argi faltsurik ez denat harkaitzetan
 Jarriko Milia,
 Gauero Izaro uhartetik
 Ene ohe hotzaren berotzera
 Igerika etor hadin
 Nahi dudalako:
 Ez dezakenat imajina
 Harrietan zitzikatu eta txori gosetiek
 Ausiki hire gorputz unatua.
 Maite haut
 Eta maite dinat Izaroren
 Arratoi bakartasuna arrats apalean,
 Bermeoko kostako harkaitzetan
 Argia pizten dudanean,
 Olde kexatuetarik
 Bidea ur hats dakinan.
 Maite haut Milia
 Eta maite dinat busti-bustia
 Agertzen haizenean
 Ganbarako leihoaren eremuan,
 Irriz eta erakargarri,
 Gauero Izaro uhartetik
 Ene ohe hotzaren berotzera
 Igerika etortzerakoan:
 Maite haut
 Eta maite dinat Izaro.

XII.

Zorigaitzez Milia
Legeak ez digun ezkontzeko
Baimenik emango:
 Ezkutuan aitzinatuko gaitun
 Kostarik kostea
Baionatik Bakiora
Gure ezinezko amodioa
 Altxorra bailitzan,
 Ontzi sotoetan
 gatibatuz.

Zorigaitzez Milia
Legeak ez digun ezkontzeko
Baimenik emango:
So larderiatsuen setioan,
 Kostarik kostea
Bakiotik Baionara
Uhinak laztanduko dizkinagu,
Gure ezinezko amodioa,
 Ederrena, gure hoberena,
 Oparia bailitzan,
 Musu harpeetan
 Gatibatuz.

Zorigaitzez Milia
Legeak ez digun ezkontzeko
Baimenik emango,
 Baina maiteko haut
Bakiotik Bakiora
Baionatik Baionara
 Denborak zizelkatu
 Amets zuloetan
 Behaztopatuz.

XIII.

Gatza, haizea eta urratsa baino ez naiz
 Auhenkatu zuen Miliak,
 Izerdi mineral soila itsas hegitik
 Ibiltzen naizenean.
 Ura naiz, begietakoa, kopetakoa,
 Amodioaren ondokoa,
 Holtzetan hausten den uhin esnetsua,
 Lurraren sabeleko isuri karminak
 Itsura bulkatzen duen
 Sentimentu tektonikoa,
 Euskal leihor kolpatuak
 Maite dituen Kantauri kalakaria naiz
 Erantsi zuen Miliak
 Burua nire sorbaldan
 Pausatuz,
 Zeruak, lurrak eta itsasoak
 Mututu zirenenean.

XIV.

Eremuetan uhertzen doa Milia Lasturren gogo:
Nahi dutena derasakete,
 Baina ez dugu herriaren aldeko ekimena
Sustengatzea huts egin,
Gaurkoan bide ertzean baldin eta
Geldo bagaude ere,
Huts egin dugun bakarra bizitzea da.
 Alta hor geneukan ezker,
Desira, ikara, musu eta ezpain ukatu,
Ekimen onartua aitzakitizat hartuz
Isiltasunaren hobietan ehortzi,
Algara gordinetan umiliatu
 Gaizo gure bizitza.
Eremuetan galtzen doa Milia Lasturren gogo:
Min egiten didan maitea
 Horrela mintzo haizelarik:
 Hauturik bagenuena?
 Ez ezan negarrik egin,
Mende erdia iragan dinagu eratorrian
Eta soizan, hemen gaitun oraino,
 Bizitzako hariak iruten
 Egunerokotasunaren mihisea
Brodatzeko.
Begira iezadan Milia,
 Begirada iezadan otoi,
 Gorets dezagun
Bizkaiako kosta:

XV.

Ni bezala zutik
 Dagola Bakio,
 Maitea eskutik,
 Hurbildu nakio.

Uhinen begitik
 Menditikan edo
 Arkaitzen hegitik
 Eder da Bermeo.

Urrunago berriz
 Ageri Mundaka:
 Eskatu du irriz
 Bitsaren balaka.

Urdaibai osoa
 Bai eta Gernika
 Biltzen doa soa,
 Gatzaren ninika.

Ezpainen zokotik
 Potta bedi aira:
 Laztanen gogotik
 Aiduru da Laida.

Uraren ardatzak
 Bezalako haga:
 Izaroko gatzak
 Zoratu du Laga.

Badator ekaitza,
 Gordetzea hobe:
 Gerizetan gaitza
 Dugu Elantxobe.

Itzala lurretan
Ez dadin andea,
Harri ahurretan
Lotan dago Ea.

Nola geratu hotz
Bizitzatik bazter,
Geroaren bihotz
Dugula Ispazter?

Holtz ilunen gaina
Errauts dabilkio:
Jabaldu da zaina.
Hor du Lekeitio.

Erraietan dut maiz
Hainbeste amorru.
Bozkariatzen naiz
Ikusiz Ondarru.

Maiteko dut labe
Bizkaiako kosta.
Ba nabil zu gabe
Milia, prefosta...

Itxaro Borda

NIRE BIZITZA NIRE EGUZKI DANTZA DA

Leonard Peltier

Prison writings. My life is my sun dance

POETRY



Espetxe idazlanak. Nire bizitza nire eguzki dantza da

POESIA

“... Scattered among these journal entries, soul thoughts, political musings, and personal recollections are nuggets of reflections in the form of poems, but I don't really think of them as poems, they are arrows of meaning, and hopefully of healing, from my heart to yours. I hope they hit their mark.”



(Protector of the Woods)

“... Eguneroko sarrera, arimaren pentsamendu, erreflexio politiko, eta gogorapen pertsonal horien artean hedatuta, badaude erreflexio pieza batzuk poema gisa, baina izatez ez ditut poema modura kontsideratzen, esanahi-geziak dira, eta esperantzaz sendatzeko geziak, nire bihotzetik zurera. Espero dut beren zurira jotzea.”

Doing time creates a
demented darkness of my
own imagination...

Doing time does this thing
to you. But, of course, you
don't do time.

You do without it. Or
rather, time does you.

Time is a cannibal that
devours the flesh of your
years

day by day, bite by bite.

(Kondena)-denbora betetzeak
nire irudimenaren
iluntasun ero bat sortzen du...

Denbora betetzeak
hori ekartzen dizu. Baina, noski,
ez duzu denbora bete.

Denbora betetzen duzu, denborarik gabe. Edo
hobeto, denborak betetzen zaitu.

Denbora zure urteetako haragia
egunez egun, haginkadaz haginkada
jaten zaituen kanibala da.

a prayer

Grandfather,
Mysterious One.
We search for you along
this Great Red Road you have set us on.

Sky Father,
Tunkashila,
We thank you for this world.
We thank you our own existence.
We ask only for your blessing
and for your instruction.

Grandfather,
Sacred One,
Put our feet on the holy path
that leads to you,
and give us the strength and the will
to lead ourselves and our children
past the darkness we have entered.
Teach us to heal ourselves,
to heal each other
and to heal the world.

Let us begin this very day,
this very hour,
the Great Healing to come.

otoitza

Aitona,
Misteriotsua,
Jarri gaituzueneko Bide Gorri Handi honetan
zehar bilatzen zaitugu.

Aita Zeru,
Tunkashila,
Mundu honengatik eskerrak ematen dizkizugu.
Geure existentziagatik eskertzen zaitugu.
Soilik zeure bedeinkapen
eta argibidea eskatzen dizugu.

Aitona,
Sakratua,
Zuregana eramaten duen bidexka sailduaren gainean
jarri gure oinak,
eta eman indarrak eta gogoa
sartu gareneko iluntasunaz haratago
zuzen gaitezen eta geure haurrak zuzen ditzagun.
Irakats iezaguzu sendatzen,
batzuek besteak sendatzen,
eta mundua sendatzen.

Utz gaitzazu hasten egun honetan bertan,
une honetan bertan,
etortzeko dagoen Sendaketa Handia.

aboriginal sin

We each begin in innocence.
We all become guilty.
In this life you find yourself guilty
of being who you are.
Being yourself, that's Aboriginal Sin,
the worst sin of all.
That's a sin you'll never be forgiven for.

We Indians are all guilty,
guilty of being ourselves.
We're taught that guilt from the day we're born.
We learn it well.

To each of my brothers and sisters, I say,
be proud of that guilt.
You are guilty only of being innocent,
of being yourselves,
of being Indian,
of being human.

Your guilt makes you holy.

aborigen bekatu

Guretariko bakoitza inozentzian hasten gara.
Guztiok errudun bilakatzen gara.
Bizitza honetan errudun sentitzen zara
nor zarena izateaz.

Zeu izatea, hori da Aborigen Bekatu,
bekaturik larriena.
Inoiz barkatuko ez zaizun bekatua da.

Gu indiarrek errudun gara guztiok,
Geu garena izateko errudun.
Erru hori irakasten zaigu jaio garen egunetik.
Ongi ikasten dugu.

Nire anaia eta arreba bakoitzari, diotset,
egon harro erru horretaz,
indiar izateaz,
gizaki izateaz.

Zeuen erruak sakratu egiten zaituzte.

My life is a prayer for my people.



(Head dancer)

Nire bizitza nire herriarentzako otoitza da.



(Zi warrior)

the heart of the world

Here I am,
 locked in my own shadow
 for more than twenty years
 and yet
 I have reached my hand
 through stone and steel and razor wire
 and touched the heart of the world.
 Mitakuye Oyasin, my Lakota brethren say.
 We are all related.
 We are One.

munduaren bihotza

Hemen nago
 Neure itzalean giltzapeturik
 hogei urte¹ baino gehiagotan zehar,
 eta hala ere,
 neure eskua luzatu dut
 harri, altzairu eta alanbre arantzadunaren artean
 eta munduaren bihotza ukitu dut.
 Mitakuye Oyasin, esaten dute nire lakota anaiek.
 Guztiok lotuta gaude.
 Bat gara.

[beheko oharra:] 1 Orain, 2006ko uztail honetan, 31 urte daramatza presondegian Leonardek.

¹ Orain, 2006ko uztail honetan, 31 urte daramatza presondegian Leonardek.

in the shadowed night

Sometimes
in the shadowed night
I become spirit.
The walls, the bars, the gratings dissolve into light
and I unloose my soul
and fly through the inner darkness of my being.
I become transparent,
a bright shadow,
a bird of dreams singing from the tree of life.

itzaldutako gauean

Batzuetan
itzaldutako gauean
izpiritu bilakatzen naiz.
Ormak, barroreak, burdin hesiak desegiten dira
eta neure arima askatzen dut
eta hegaz egiten dut neure
izaeraren barneko
iluntasunean zehar.
Garden bilakatzen naiz,
itzal dirdiratsu bat,
ametsezko txori bat bizitzaren arbolatik kantatzen.

the knife of my mind

I have no present.
I have only a past
and, perhaps, a future.
The present has been taken from me.

I'm left in an empty space whose darkness
I carve at with the knife of my mind.
I must carve myself anew
out of the razor-wire nothingness.

I will know the ecstasy
and the pain
of freedom.
I will be ordinary again.
Yes ordinary,
the terrifying condition,
where all is possibility,
where the present exists and must be faced.

nire gogamenaren aiztoa

Ez dut oraina.
Soilik iragana daukat
eta, agian, etorkizun bat.
Oraina kendu egin zait.

Espazio hutsean geratzen naiz zeinaren iluntasuna
nire gogoaren aiztoaz zizelatzen dudan.
Berriz neure burua zizelatu behar dut
Alanbre arantzadunaren deusezetik.

Askatasunaren estasia
eta mina
ezagutzen ditut.
Berriz arrunta izango naiz.
Bai, arrunta,
baldintza beldurgarri hori,
non dena posibletasuna baita,
non oraina existitzen den
eta aurre egin behar baitzaio.

i am everyone

I am everyone
who ever died
without a voice
or a prayer
or a hope
or a chance...
everyone who ever suffered
for being an Indian,
for being human,
for being indigenous,
for being free,
for being Other,
for being committed...

I am everyone of them.
Every single one.
Yes.
Even you.

I am everyone.

guztiok naiz ni

Ahotsik gabe
edo otoitzik barik
edo esperantzarik gaberik
edo aukerarik bagerik
hil diren guzti haiek
naiz ni
indiar izateagatik,
gizaki izateagatik,
indigena izateagatik,
aske izateagatik,
Bestea izateagatik,
konprometituta egoteagatik
inoiz sufritu duen guzti hura.

Haietariko bakoitza naiz.
Haietariko bat.
Bai.
Baita zu ere.

Guztiok naiz ni.

an eagle's cry

Listen to me!

Listen!

I am the Indian voice.

Hear me crying out of the wind.

Hear me crying out of the silence.

I am the Indian voice.

Listen to me.

I speak for our ancestors.

They cry out to you from the unstill grave.

I speak for the children yet unborn.

They cry out of you from the unspoken silence.

I am the Indian voice.

Listen to me!

I am a chorus of millions.

Hear us!

Our eagle cry will not be stilled!

We are your own conscience calling you.

We are yourself
crying unheard within you.

Let my unheard voice be heard.

Let me speak in my heart and the words be heard
whispering on the wind to millions,
to all who care,
to all with ears to hear
and hearts to beat as one
with mine.

Put your ear to the earth,
and hear my heart beating there.

Put your ear to the wind
and hear me speaking there.

We are the voice of the earth,
of the future,
of the Mystery.

Hear us.

arrano baten oihua

Entzun nazazu!

Entzun!

Ahots indiarra naiz.

Aditu nazazu haizetik oihukatzen.

Aditu nazazu isiltasunetik oihukatzen.

Ahots indiarra naiz.

Entzun nazazu!

Gure arbasoengatik mintzo naiz.

Hilobi ez-isiletik oihuka deitzen dizute.

Jaio gabeko haurrengatik hitz egiten dut.

Haiek oihuka dei egiten dizute esan gabeko isiltasunetik.

Ahots indiarra naiz.

Entzun nazazu!

Milioien koru bat naiz.

Entzun gaitzazu!

Gure arranoaren oihua ez da isilduko!

Zeure kontzientzia gara zuri deika.

Zu zeu gara gu

entzun gabe oihuka zure barnean.

Utz nire entzun gabeko ahotsa entzun dadin.

Utz nazazu neure bihotzean hitz egin eta hitzak entzun daitezen

haizearen gainetik xuxurlatzen milioiei,

ardura duten guztiei,

entzuteko belarriak dauzkaten

eta nire bihotzarekin batera

taupadak emateko bihotzak dituzten guztiei.

Hurbil zeure belarria lurrera,

eta entzun bertan nire bihotzak taupadak ematen.

Hurbil zeure belarria haizera

Eta entzun nazazu bertan mintzatzen.

Lurraren,

etorkizunaren,

Misterioren hotsa gara.


Entzun gaitzazu!

My crime's being an Indian.
What's yours?



(I dance with the Spirit of Horses)

Nire krimena indiarra izatea da.
Zein da zurea?



(Grass dancers)

we are not separate

We are not separate beings, you and I.
We are different strands of the same being.

You are me and I am you
and we are they and they are us.

This is how we're meant to be,
each of us one,
each of us all.

You reach out across the void of Otherness to me
and you touch your own soul!

ez gaude banaturik

Zu eta biok ez gara izaki banatuak.
Izaki bereko hari desberdinak gara.

Zu ni zara eta ni zu naiz
eta gu haiek gara eta haiek gu dira.

Honela da nola suposatzen den izan behar garela,
guretariko bakoitza bat,
guretariko bakoitza guztiok.

Bestetasunaren hutsean zehar niregana iristen zara
eta zeure arima ukitzen duzu!

forgiveness

Let us forgive the worst among us
because the worst is in ourselves,
the worst lives in each of us, along with the best.

Let us forgive the worst
in each of us
and all of us
so that the best
in each of us
and all of us
may be free.

barkamena

Barka dezagun geure arteko txarrena
zeren txarrena gure baitan baitago,
txarrena guretariko bakoitzean bizi da, hoberenarekin batera.

Barka dezagun txarrena
guretariko bakoitzean
guztiongan
horrela aske izan ahal dadin
guretariko bakoitzean hoberena
eta guztiongan.

difference

Let us love not only our sameness
but our unsameness.

In our difference is our strength.

Let us be not for ourselves alone
but also for that Other

who is our deepest Self.

desberdintasuna

Maite dezagun ez soilik geure izaki berdina
gure izaki ezberdina baizik.

Gure desberdintasunean dago gure indarra.

Izan gaitezen ez soilik geure buruarentzat
Beste horrentzat baizik

Zeina gure sakoneneko Ni baita.

the message

Silence, they say, is the voice of complicity.

But silence is impossible.

Silence screams.

Silence is a message,
just as doing nothing is an act.

Let who you are ring out and resonate
in every word and every deed.

Yes, become who you are.

There's no sidestepping your own being
or your own responsibility.

What you do is who you are.

You are your own comeuppance.

You become your own message.

You are the message.

mezua

Isiltasuna, diote, konplizitatearen ahotsa da.

Baina isiltasuna ezina da.

Isiltasunak oihu egiten du.

Isiltasuna mezua da
ezer ez egitea ekintza bat den bezala

Utz zu zarena entzun dadin eta oihartzuna izan dadin
hitz bakoitzean eta ekintza bakoitzean.

Bai, bilaka zaitez zeu zarena.

Ezin duzu baztertu zeure izakia
edo zeure erantzukizuna.

Egiten duzuna nor zarena da.

Zeuren zara zeure zigorra.

Zeuren bilakatzen zara zeure mezua.

Zeuren zara mezua.

In the Spirit of Crazy Horse



(Hawkman II)
Zaldi Eroaren Izpirituan

Leonard Pelletier

U.S.P. #89637-132
Preso Zenbakia #89637-132

Oharrak

- (1) Poema hauek Leonard Peltieren liburuan, *Prison Writings. My Life is my Sun Dance* delakoan azaltzen dira.
- (2) Hemen agertzen diren pinturak Leonardek berak eginak dira.
- (3) Hona Leonard Peltieren aldeko komitearen helbidea:
<http://www.leonardpeltier.net/>.
- (4) Leonard Peltieri buruz, sarrera gisa, ikus
http://www.gara.net/pf_idatzia/20060103/art145710.php.
- (5) Lantxo hau Leonard Peltierentzat da, opari gisa haren hitzetan eta haren egunean (Irailak 12).
- (6) Itzultzailea: joseba felix tobar-arbulu.

ARIKETA METAFISIKOAK

- Pello Otxoteko -

1.-

Hasieran ez-izatea bazen
eta izatearen aukera hautatu zuen.
Orduz geroztik argia gurekin da,
baina ez-izatearen itzalak berarekin dirau.

2.-

Hutsunearen harrabotsean blaiturik
oihartzunaren deiadarra sentitzen duzunean,
izatearen zerizana
ezerezaren mugetan aurkitzen dela
ulertuko duzu.

3.-

Batzutan,
soilik batzutan,

izatearen zedarriztapenak gaindituz
gorantz zuzendu begirada,
iluntasun basatian izarrak itsutzen
eta ene barne isiltasunean oihu egiten dut.

4.-

Argiak ez du estratarik behar
bere ibilbidea egiteko.

5.-

Ez dugu argirik behar
ezerezean murgiltzeko;
eta hala ere,
argia gurekin da.

6.-

Ezereza bere barrunbe garbian
bakardade betea da,
erabateko infinitua,
hustasun osoa.

7.-

Deus gutxi dakigu.
Errorik ez duen arima
maiz islatzen da
gizakion zerizanetan,
lanbropean arnas estuka galtzean.

8.-

Itzalen mundua
 gauez zein egunez
 ager daiteke,
 izan ere,
 Eguzkiak gogor
 jotzen duen egunetan
 itzalak nonahi
 azaltzen baitira.

9.-

Hiltzea denborari hutsunea ematea da.

10.-

Esnatzeak ez du edukirik behar.
 Gogoak ez dauka adimenik.
 Sorrera unetik, ez da ezer berezkorik badena.
 Hautsak ez dauka pausatzerik hutsunean.
 Eta hutsuneak barrunberik gabe deusezera garamatza.

11.-

Deuseza, elikagai.

Zarataren zama
 ezin zabaldurik
 zokoraturik nauka
 zorotasunezko zentzuan.
 Hots-uhinak ez omen dira sekulan geratzen
 sentituko dituen oztopoa aurkitu arte.
 Inon geratu ezean, infiniturantz dihardute.

Nora doaz bada gure gogoeten uhinak?
Gogoetak hitzen bidez husten dira.
Inork entzun ezean, deusezean barreiatzen dira.
Eta ezereza
hitz goxo eta ederrez
erabat beteta dago.
Edan deuseza
ezerezaz asetzeko!

12.-

Denboraren oroimena.

Oraina ohar ttikitan idazten ditudan
hutsalkerien batura jarraia da,
hasperen galduetan ahitzen dena.
Gogoetak ahaztu arren
ahazten ditudala oroitzen naiz.
Nolatan gogoratu iragana, denboraren iragaitea
xede bakarra ahanztura duen oroimen xumea bada?

13.-

Gizakia mugalari hutsa da,
izatearen eta ez-izatearen tartean
oin-puntetan dabilen izakia.

14.-

Etorkizunaren helmugak
Herioren zerumugarekin
topo egiten du.

15.-

Oteizaren Ebanjeliotik.

Hasieran ba zen Hutsa;
 eta Hutsa Anphorarekin zen;
 eta Anphora zen Hutsa.
 Huts hau hasieran Anphorarekin zen.
 Dena Hutsaren bidez egina da;
 eta egindakoetan ez da ezer Hura gabe eginik.
 Harengan zen izatea.
 Eta izatea baden guztiaren zerizana zen.
 Zerizanak espazioan identitatea lortzen du;
 baina espazioak Hura ez zuen onartu,
 eta Hutsa eta Anphora banandurik geratu ziren,
 Hutsuneari sorrera eta bidea emanez.
 Orduz geroztik, Hutsa eta Anphora elkarren bila etengabe
 dabiltza
 inon eta inoiz bateratzen ez direlarik,
 Hutsunea izanik bateratze horren hurbilgunerik hurbilena.

16.-

Nola erpinek eta ertzek
 geometria bilatzen duten
 formarik gabeko espazioan,
 halaxe argiak
 pausagunea aurkitu nahi du
 iluntasuna nagusi duen mundu honetan.

17.-

Begirada altxatzen duzun bakoitzean
 zerura begira
 hodeiertzaz haratago zaude.

18.-

Ixiltasun
ixiltasun gorena.
Ez dago zalantza esnatuko duen hotsik.
Zure begien azala harantz, haratago.
Eternoa han dago, urrun, atsedetik gabe.

19.-

Hutsunearen batsa.

Hutsunea sarrera da,
ezerezaren ezkaratza.
Gure ezerezaren sarrera
ahoaan dugu,
gorputz biologikoaren
barrunbera garamatza.
Eta gure barne izatearen sarrera
begien hutsuneetan dago.
Argiak kitzikatzen du
betzuloen hutsunea,
barne izatearen ezereza
argiz betetzen dihardugu
edo betetzen jardun beharko genuke.
Gure izatea ezereza da,
argiz betetzen den
ezereza duen hutsunea,
argiaren ontzia gara
eta izpi guztien arragoa.
Gure izatean,
beste izateetan ez bezala,
izarren argi-printzak
hutsunearen hautsari buruzko gogoeta
leunkiro bihurtzen dira
ezerezari zentzua emanaz.

Zentzumenetan islatzen da
 hutsunea heltzeko grina.
 Baina zentzumen hauekin
 hutsunea bera atxikitzea
 ezinezkoa denez
 eskuetan dugu
 bost zentzumenen luzapena,
 hatz bat zentzumen bakoitzarekiko,
 bost hatz hutsunea osotzen
 ezereza etengabe harrapatu nahian.
 Betiere ihesian doakigun arren
 ezerezari lurrunezko hatsa dagio
 eta antzematera gara iristen, hutsunean.
 Hutsunea
 ezerezaren ezkaratza da.
 Eta ezerezaren bidetik
 infinitura goaz,
 infinitua den
 osotasun betera.

20.-

Credo in Lucem Aeternam.

Gizakia ulertzen duen Jainko bat sinesten dut,
 eta gizakiak gaizkiarekiko duen joera
 onartu eta barkatu egiten duelako.
 Funtsean ezer ez dakien Jainko bat sinesten dut,
 gizakiaren existentzia behar duena
 bera nor den eta zertarako den ezagutzeko.
 Jainko bateratzaile bat sinesten dut,
 arrazoia eta sentimenduak bereizten dituen pareta zaharrik
 gabe
 biak ala biak zelai berberean haziko dituen Jainkoa.
 Errealitateari zentzua emango dion Jainko bat sinesten dut,

egiaren indarrak bultzaturik, pozaren malkoak ureztaturik
eta maitasunaren arnasak haize emanez
mundua aurrera atera dadin nahi duen Jainkoa.
Eta piztu ez zen Jainko bat sinesten dut,
argia bera dena, inoiz itzaltzen ez dena,
eta berpiztearen beharrik ez duena.

(Juan Kruz Igerabideren poema batean oinarriturik).

egin zazu lagun bat KARMEL aldizkariaren harpidedun...!

(urteko harpidetza: bakarrik 12€).

Izena-deiturak - - - - -

Kalea - - - - - Zbkia. - - - - Solairua - - - - -

Herria - - - - - Tfnoa. - - - - Postakoadea - - - - -

Herraldea - - - - -

Ordainketa

Banku edo Aurrezki Kutxa - - - - -

Kontu korrontea/libreta _ _ _ _ _

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu-zenbakia

* * * * *

Aldizkariaren helbidea:

KARMEL - Zuzendaritza

Karmengo Plaza, 5

48270 Markina (Bizkaia)

(Tel. 946 166 019)

www.karmelaldizkaria.com/karmel

BALENDIN AURRE APRAIZ, AJANGIZKO OLERKARIA

